



**Sakanako Bizikleta Egunak Ziordia eta Irurtzun batu zituen giro bikainean eta eguraldia lagun / 14**

**Euskaraldian ahobizi edo belarriprest gisa izena emateko epea azaroaren 17ra arte dago zabalik / 6**

**Haur eskolen inguruan lortutako akordioarekin mesfidati daude hezitzaileak / 8-9**

**Mendi korrikalariek bi hitzordu dituzte: Olatzagutia-Urbasa eta Etxarriko Mendira Joan Etorria / 15**

**Eneko Lazkoz bertsolaria bihar mustuko da Bertsolari Txapelketa Nagusian / 20**

**Sakanako ikastoletako DBH3ko ikasleek 'Liburu ibiltaria' osatzen lagundu dute / 22-23**



**Erkuden Ruiz Barroso** ETXEBERRI

Aixita gazteluaren lehenengo dokumentazioa Antxo VII. Azkarrarenak dira. XIII. mendean zenbait foru eman zituen: Irurtzun, Etxeberri... "Eta Aixita gazteluaz hitz egiten du". Dena dela, Iñaki Sagredo historialariak azaldu duenez, gazteluan egindako arkeologia indusketetan aurkitutako arrastoen carbono-14 probak 1.180-1.190 urteetan, gutxi gorabehera, gaztelua bertan zegoela erakusten dute. Erreferentzia dokumental "asko" dagoela esan du Sagredok. XV. mendean Johan de Erasok gaztelua konkistatu zuen erregearendako, eta 1512. urtean Albako Dukearen tropak Nafarroa konkistatzera sartu zirenean, eraistea erabaki zuten lehenengotariko gazteluetakoa Aixita izan zen.

XXI. mendera arte. Sagredo Nafarroako Erreinuako gazteluetan aditua da, eta, besteak beste, *Navarra, Castillos que defendieron el Reino* liburua kaleratu du. 2010 urtean Arakilgo Udalarekin bildu zen Aixita gaztelua oso interesgarria iruditzen zitzaio-lako, eta garaiko alkatea zen Ruben Goñik "aurrera" egiteko esan zion. "Arakilek asko bultzatu du Aixita, oso berea bezala hartzen du".

2010 eta 2020 urte bitartean indusketak egin dituzte Aixita gazteluan, eta bertan aurkitutakoa *Aixitako gaztelua: Arakilgo zaindari* erakusketan eta Sagredok aurreko ostiralean, irailaren 23an, Etxeberrin egin zuen hitzaldi batean bildu dute. Erakusketan Etxeberriko elizan ikusi daiteke gaur, irailak 30, 18:00etatik 20:00etara, eta urriaren 1ean eta 2an, larunbatean eta igandean, 11:00etatik 13:00etara. Urriaren 2an ere Aixita gaztelura bisita gidatua antolatuko dute, 10:00etan Etxeberritik aterako dena. Ekimen hauek 2022ko Ondarearen Europako Jardunaldiak, Ondare jasagarria programaren barruan antolatu ditu Arakilgo Udalak, Irurtzungo Udalaren laguntzarekin.

"Ruben Goñiri komentatu nion, garai hartan Arakilgo alkatea



Iñaki Sagredo historialaria Etxeberriko Aixitako gazteluaren aztarnen erakusketan.

# Aixitaren berpiztea

Duela hamar urte inguru hasi zen Iñaki Sagredo Garde historialaria Bi Ahizpen dagoen gaztelua ikertzen eta arkeologia indusketetan. 'Aixitako gaztelua: Arakilgo zaindari' erakusketan bildu dute jasotakoa. Etxeberrin ikus daiteke

zena, bertan gaztelu bat zegoela eta garai hartan hasi ginen garrantzitsutzat jotzen Nafarroako Erresumako gazteluak. Adibidez, Iruritakoarekin urtebete lehenago hasiak ginen, eta orduan jendeak bertan zegoena ikus zezan aztarnak ateratzen hasi behar ginela esan genion, oso gutxi ikusten zelako". Aixita gaztelua zegoen lekura joan eta indusketak egiten hasi ziren, "eta arrastoak ateratzen hasi ziren, horiekin egiten genuena kontsolidatzen zen". Esaterako,

gaur egun aljibea dagoen tokian, "ez zegoen ezer". Dena estalita zegoela azaldu du Sagredok, "zenbait zuhaitz zeuden, eta garbitzean eta indusketa egin ondoren, aztarnak atera ziren". Gaur egun aljibearen zati handi bat ikusten da. Denbora luzea pasa zuten harriak eta lurra ateratzen, "izugarria" izan zen. "Azkenean, nahiko ongi geratu da".

Indusketetan ateratako beste elementu bat dorrea izan da. "Bakarrik ilara bat ikusten zen, eta guk handitu dugu dorrea ongi

ikusteko". Oso gutxi ikusten zenez, "jendeak ongi ulertzeko" forma mantenduz luzatu dute dorrea. "Agian pixka bat gehiago egin genezakeen, baina horrela utzi dugu".

## Aurkikuntzak

"Gauzak" aurkitu zituztela bazekiten, "adibidez aljibea aurkikuntza bat izan zen ez genekialako bertan halakorik egongo zenik". Dorrea gutxi gorabehera non zegoen bazekitela azaldu du historialariak, "belarren artean

harriak ikusten ziren". Baina arrasto eta harri asko desagertu direla aipatu du. "Adibidez, gaztelu guztiaren inguruan harresi bat zegoen eta seguruenik beste dorre bat zegoen". Jasotako informazioarekin Aixita gazteluaren berregitea egin dute. "Dorrea egon zitekeen tokian jarri dugu gutxi gorabehera, baina ez daki-gu zehazki non zegoen".

Sukaldeetan ohikoak ziren zeramika zatiak; ur edo ardo pitxer baten zatiak; elikadura arrastoak, esaterako, ahuntzen, behien eta txerri "askoren" hezurak... Aixita gazteluan egindako indusketetan egunerokotasunean erabiltzen zituzten materialen zati asko aurkitu dituzte, eta Etxeberriko erakusketan "zati bat" baino ez dute jarri, deigarriena edo nabarmena, bi erakusleihotan bilduta. Objektu nabarmenenetako bat ezpata da. "Ezpata bat agertu zen; ez da oso ohikoa ezpatak agertzea".

Nafarroan ezohikoa den beste aurkikuntzetako bat brontzezko pieza bat da, gerrikoan eramaten zena eta arkuarekin geziak botatzeko erabiltzen zena. "Gerrikoan jartzen zuten eta ballesta kargatzen zuenak kordarekin atzera botatzen zuen eta arkuaren tirantea kargatzen zuen. Aurkikuntza ikusgarria zela esan zuten. Izugarria da, oso aurkikuntza polita".

Eraztun pare bat, azken urtean agertutako txanbil zati handi bat eta iltze asko ere ikus daitezke erakusketan. "Iltze asko agertzen dira. Estructura guztiak egurrezkoa ziren eta uste dugu gaztelua ere egurrezkoa zela". Oho-lez egindako hesi bat dokumentatuta dago, eta sortu duten berregitean jarri nahi zuten, baina gaztelua ez zelako ongi ikusiko ez zuten jarri, "ikusiko dugu aurrerago jarriko dugun ala ez".

"Dorrearen zati bat aurkitu genuen, oso erabilgarria izan zaiguna, edo aljibearen harri guztiak. Hainbeste aurkitzea ez da ohikoena horrelako gaztelu txikietan". Kakotxen artean "nahiko ongi" zegoela esan du Sagredok,



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak  
[www.ventanasegoki.com](http://www.ventanasegoki.com)

**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

[egoki@ventanasegoki.com](mailto:egoki@ventanasegoki.com)

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



"azarnak aurkitu ditugu, eta hori oso ongi dago". Irurita-koarekin alderatuta aljibearen hutsune hori dagoela eta haitza landuta dagoela esan du, "baina ez dago gehiago".

Principe de Vianak ematen ditu gazteluan indusketak egiteko baimenak. "Udan etortzen ginen. Egon dira urteak ez garenak etorri, eta badaramatzagu pare bat edo hiru urte aurkikuntzaren garrantzia nabarmentzen". Esaterako, fase honetan berregitea egin dute, duela lau urte inguru ibilbidean eskailerak eta informazio panelak jarri zituzten eta horri guztiari "buelta" ematen ari zaizkio. "Interesgarriena da jendea igotzea eta gaztelua eza-gutzea".

Arakilgo eta Irurtzungo udalak proiektuaren atzean egon dira "beti" eta "garbi izan dute garrantzitsua dela". Indusketa lanak egiteko auzolanak egin dira, "eta eskatu dugun bakoitzean jendea gustura joan da, historia kontatzen diegu, eta gero auzatea dago". Lan "gogorra" izan dela aitortu du Sagredok, "goraino igo behar da, haitzetik, eta nahiko gogorra da. Oraindik zakuak atera behar ditugu".

#### Historia

Aixita gazteluaz hitz egiten duen lehenengo dokumentua Antxo VII. Azkarrarena da, 1210ekoa. "Askoz gehiago daude". Dokumentu horietan alkaideak edo gazteluen arduradunak nor ziren agertzen da, baita Aixitakoak

## "ORAIN INTERESGARRIENA DA JENDEA AIXITAKO GAZTELURA IGOTZEA ETA EZAGUTZEA DA"

## "NAHIKO ONGI ZEGOEN; BERTAN AZTARNAK AURKITU DITUGU, ETA HORI OSO ONGI DAGO"

## JASOTAKO INFORMAZIOAREKIN GAZTELUAREN BERREGITEA EGIN DUTE

zein ziren eta nondik zetozen ere: "Latasa, Arbizu... hemengo jendea zen. Horregatik da garrantzitsua". Gazteluak izan zituen obren datak eta bertan bizi ziren soldadu taldeen eta bertan izan zituzten gauzen informazioa ere jasota dago. "Egon zen garai bat gaztelua erdi abandonatuta egon zena erregeak ez zeukalako dirurik, eta giltza arduradun bati eman zion bera noizbehinka gaztelua begiratze- ra joan zedin".

XV. mendean Johan Erasokoak gaztelua konkistatu zuen. Lata-sako pertsona oso garrantzitsua zen, eta garai hartan nafarren arteko borroka zibil bat zegoen. Johanek agramondarren alde borrokatzen zuen eta gaztelua erregearendako konkistatu zuen. "Badakigu urte hartan eraberritu zutela; beraz, garai hartara arte gehienbat egurrezkoa zen, eta urte hartatik aurrera harrizkoa egin zuten".

1512an Albako Dukearen tropak Nafarroa konkistatzera sartu zirenean, Aixita gaztelua eraistea erabaki zuten: "Behera botatzen lehenengotarikoa izan zen beldurra ematen baitzien haien bizkarraldean gaztelu bat izateak".

"Aixita bezalako gazteluak kontrol gazteluak ziren, defentsarako. Jendeari esaten diozu bertan gaztelu bat dagoela eta ez du sinisten toki txikiak izaten direlako". Gehienez hamar gizon bizi ziren bertan, eta bere misioa haranetako pasabideak kontrolatzea zen, baita arrisku egoeratan abisatzea ere. "Jendeak bertan gaztelu bat zegoela eta bertakoa zela ikusteko ere erabiltzen ziren". Mugarri defentsiboak ziren. "Oso bertakoa zen gauza bat zen, ez zen gizontxo feudalen zerbaite". Aixitatik Iruñerriko sarrera, Larraungo pasabidea eta Sakanako harana kontrolatzen zuten, baita Ororregiko eta Ga-

rañoko gazteluekin, Oskia-ko pasabidea kontrolatzen zutenak. Aixitatik ikusten dira.

Oso xumeak ziren eta konponketetan emakumeek eta hurrek parte hartzen zutela azaldu du Sagredok. "Denek kobratzen zuten Foru Orokorren bidez kontrolatuta zegoelako, oso garrantzitsua zena". Dena ekonomikoki erregulatzen zela azaldu du historialariak, "eta harriztekoa zen XIII. mendean obren kontrol hain handia egotea eta nola eginen ziren gauzak hain ongi". Obra maisua Aixitara joaten zen, zer konpondu behar zen begiratzen zuen, eta ondoren informatzen zuen, "gastuekin eta guztiarekin".

Aixita gazteluan egindako indusketak amaitu dituzte, eta orain hurrengo fase batean sartu da: balioa azpimarratzearena. 2013an Nafarroa Bizirik fundazioak mugarria jarri zuen, Nafarroako Erresumaren defentsa sistemako zenbait eraikinetan egin bezala. Sagredoren taldeak informazio panela jarri zuen, txapazkoa, eguraldiari aurre egin ziezaien. Ibilbidea seinaleztatuta dago, "landa ingurunea kontuan izanik, inguruarekin bat eginez", eta mendizale aditua izatea beharrezkoa ez den arren, "badu bere arriskua bideak". Haitz batean dagoela kontuan izan behar da, beraz, haur txikiarekin joatea ez dela oso gomendagarria esan du historialarik.

#### Etorkizuna

"Zer geratzen zaio? Garrantzitsuen orain mantentze plan bat diseinatzea da. Guk bukatu dugu, baina landareak haziko dira berriro, harresiaren artean, natura horrelakoa delako". Festa bat antolatzea proposatu du Sagredok: "Marutegin, Araian edo Garañon, hori egiten dute. Esatea, adibidez: 'Apirilaren 17an Aixita eguna ospatuko dugu' eta aurretik auzolanean garbitzen eta argamasa jartzen eta abarretan hastea". Bi data finkatuko lituzke, beraz, historialariak, "bestela galduko da".

Irurtzunen eta Arakilen hasieratik prestutasuna izan dutela esan du Sagredok. "Egia da beste zenbait herritan sorpresa txarrak izan ditugula, hasieran bazirudielako baietz, baina gero beste alkate bat iristen zen eta ezetz esaten zuen haien kontuengatik". Baina Arakilen "beti" bat egiten dutela esan du.

## Aixitaren historia laburra

Etxeberriko erakusketan irakur daitekeen informazioa:

#### 1210

Gaztelua lehen aldiz Antso VII.a Azkarrak Arraiçega, Guïçairudiaga, Echaverri, Irurçun, Latorlegui, Aiçorbe Iruñiuta-ri emandako foruetan.

#### 1280-1378

XII. mendearen amaieran eraiki zen, bi ahizpen haitzaren gainean, Larraun ibaiaren igarobidean Arakilgo korridorearen igarobide estrategikoa babesteko. Gertu zegoen Oskia-ko pasabidea babesten zuten, Orarregi eta Garañoko gotorlekuak ikus zitezkeen. Konponketak jasan ditu urteetan zehar.

#### 1405

1440. urtea baino lehen bota eta berreraiki behar izan zuten gaztelua; kalitate txarragokoa.

#### 1461

Agramondarren eta beaumontarren arteko gerra zibilean Johan de Eraso agramondarrak Nafarroako erregearentzat bereganatu zuen. Eskerrak emateko, erregeak Etxeberriren ohiko petxak eman zizkion eta Goldaraten errenta batzuk ordaindu zizkion.

#### 1512


Gaztelako tropek Nafarroa konkistatu bezain Ister suntsitzeko agindu zuten. Indusketa arkologikoetan, sute geruza bat aurkitu da gaztelua eta haren inguruak hartzen zituen gainazalean.

#### 2010

Iñaki Sagredok zuzendutako Gestión Cultural Larrate taldeak ikerketa arkeologikoko lanak hasi zituen.



Lur eta harri asko atera behar izan zuten aljibea berreskuratzeko. UTZITAKOIA



ASTEKOA

AITZIBER CAMPION GANBOA

## Sakrifizioa vs. Konpromisoa

Asko sufrituaz lortzen dena gehiago estimatzen omen da; sakrifizioaren apologiak eskuratutako emaitza moduren baten aberastuko balu bezala. Sakrifikatua da militantzia, sakrifikatua amatasuna eta sakrifikatua argal eta erakargarria izatea. Ikuspegi kapitalistak dena blaitzen du, emaitzari soilik balioa emanez eta prozesua gutxietsiz.

Sakrifizioak prozesuan baztertzeko dugarri buruz hitz egiten digu: egin nahiko genukeen eta egin ezin dugun horri begiratzen dio. Konpromisoak, aldiz, egin nahi duguna ekartzen du argitara. Konpromisoaren barnean daude zer lortu nahi dugun eta, batez ere, zer egiteko prest gauden.

Oso ezberdina da, beraz, nola ekiten diogun erronka bati, sufrimenduari begira edo ikasiko dugunaren irrikaz. Non bilatuko dugu aurrera jarraitzeko motibazioa? Sakrifizioan edo konpromisoan?

Pandemiaren garairik larrienetan sakrifizioaren izenean eskatu ziguten agintariek neurriak hartzeko; beldurrean oinarrituta eta arau bakoitzak zekarren askatasun galera nabarmenduz. Ez al zen eraginkorragoa izango neurri bakoitza komunitatearekiko konpromisoan oinarritzea? Zaintza kolektiboak nola indartzen gaituen nabarmentzen ahal zen, elkar zaintzeko praktika berriei bideak irekiz eta,

## OSO EZBERDINA DA, BERAZ, NOLA EKITEN DIOGUN ERRONKA BATI, SUFRIMENDUARI BEGIRA EDO IKASIKO DUGUNAREN IRRIKAZ

batez ere, baliabidez hornituz.

Orain ere ongizate sistema omen den hau gure sakrifizioarekin babesteko eskatzen digute; aise esaten digute zer itzali behar dugun, zer gutxiago kontsumitu, zenbat gehiago ordaindu. Eska diezaiegun guk agintariei pertsonen bizitzak herriarekiko konpromiso politikoarekin babes ditzatela.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehenez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### Gertu egotetik, etxera!

#### SARE HERRITARRA ETA ETXERAT

Unai Parot Zaballako espexera lekualdatzearekin, urrunketa eta sakabanaketak ardatzutako aro luze bat itxi da Etxarri Aranazko preso politikoentzat. Jon Gurutz, Karlos eta Asier Martutenen daude; Luis eta Juan Ramon, Iruñean; eta Unai, esan bezala, Zaballan. Herriak kaletik eta presoak beraiek barrutik eragindako bulkada bikoitzak lortu du azkenean duela oso gutxi arte mugiezina zirudien dispersioaren harrizarra biraka jartzea. GERTU ditugu. Orain, ETXERA ekarri behar ditugu.

Karlos urriaren 14an aterako da; Jon Gurutzek azaroaren hasieran beteko du Frantzian ezarri zioten zigorra, eta Espainiak berriro ireki dizkion auzi

"zaharrek" zein norabide hartuko duten zain geratuko da. Asier Martutenen dago, espexer politikaren eskumenaren transferentzia gauzatu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren ardurapean. Etxera itzultzeko egiten ari den ibilbidean aurrera urrats garrantzitsuak egitea lortu du. Une honetan astelehenetik ostiralera egunero hamar orduz ateratzen da espexetik hezitzaile gisa duen lanerako joan-etorria egiteko. Hurrengo urratsa hirugarren gradua eskuratzea beharko luke, espexera soilik lo egitera, eta asteburuak etxean edota pultsera telematikoarekin etxean. Baldintza guztiak betetzen ditu horretarako. Unai ere Jaurlaritzak kudeatzen duen espexer batera iritsi berri da, non

pentzatzekoa den orain arte ukatu dizkioten eskubideak aitortzen hasiko direla, eta azkartu ahal izango duela bere etxerako bidea. Juan Ramon eta Luis Iruñean daude, oraindik orain Madrilen eskumenpean dagoen espexer. Espexer zuzendari berria izendatu dute Iruñean, eta ikusteko dago aldaketa hau onerako izango den. Legean idatzitakoa betetzeko konpromisoa hartzen badu, horrela izanen da.

Gauzak horrela, ETXERAKO BIDEA EGITEKO ezinbestekoa den indarra biderkatzea dagokigu: Herriaren konpromisoa. GERTU/PREST gaude. Urriaren 8an Donostian eginen den ekimenak inflexio puntua izan nahi du horretako. Zure indarra ere behar dugu.



## OBJEKTIBOTIK

### Urruneko kartzela

Dispersatutako azken preso etxarriarraren lagun batek, irailaren 18an Mansilla de las Mulasen (Leon) azken bisitatik etxera bueltan ateratako argazkia da goikoa. Hurrengo bisita Euskal Herriko kartzela batean izanen da.



UTZITAKOIA

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

#### Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larraza

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

#### Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

# Balioz bustitako hitzak zurrumurruren kontra

Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak Zurrumurruren Kontrako Ipuin Laburren III. Lehiaketako sariak banatu ditu. Hiru edizioetako narrazioak liburu batean argitaratu ditu azaroan

HIRIBERRI ARAKIL

Aurreiritziek, estereotipoek eta zurrumurruek elkarbizitza eta berdintasuna, aniztasuna, errespetua eta diskriminazio eza balioei azpizana egiten diete. Eta horiek agerian utzi eta bestelako errealitate positiboagoak irudikatzen, narrazio laburren lehiaketa antolatu zuen zerbitzuak.

## Sarituak

Lehiaketara gaztelaniaz eta euskaraz idatzitako narrazioak aurkez zitezkeen, 16 urtera arteko eta 16 urtetik gorako mailetan. Euskarazko 16 urtetik gorako mailan ez zen lanik aurkeztu. Lehiaketarako onartutako hamaiak ipuin laburrak Zaska, Zurrumurruren kontrako Nafarroako Sareko hiru kidek epaitu zituzten. Haien arabera, "originala, enpatikoa, Sakanarako eszenatoki berria dakar" Tania Oteroren *Akira* ipuinak, 16 urtez azpiko euskarazko atalean lehen saria eskuratu zuena. Bigarren saria Sanaa Essobaik eskuratu zuen, "berdintasuna eta enpatia" nabarmentzen diren *Eskolako bullina* idazlanagatik.

Gaztelaniazkoen 16 urtetik gorako mailan, "Zurrumurrurik gabeko estrategia, enpatia, eta eszenatoki berria" azpimarratu zituzten epaileek



Saritutako guztien talde argazkia.

Izaskun Salinasen *Soy una hoja en blanco* narrazio laburrean eta, harekin, lehen saria eskuratu zuen. Añe Beñascoren *Lancha naranja* ipuinaren "zurrumurrurik gabeko proposamena eta gizakien arteko berdintasuna" nabarmendu zituzten epaileek. 16 urtetik beherakoen kasuan, berriz, lehen saria Atakondoa ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleek idatzitako *El pez vaca y las tormentas* idazlanarendako izan zen. Ikasleek esandakoak papelean jaso zituen Izaskun Gutie-

rrer irakasleak. Epaileen iritziz, narrazioak "zurrumurrurik eza, Mank-en balioak, enpatia eta eszenatoki berria agerrarazten ditu". Bigarren saria Oussama Missaouiren *Hajar* ipuinak eskuratu zuen, "berdintasuna, originaltasuna eta eszenatoki berriak" proposatzeagatik. Guztiek ere Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteari atxikitako establezimenduetan gastatzeko txartelak eskuratu dituzte. Haiek lastailaren 31 baino lehen gastatu behar dituzte.



Urdiaingo eskolako irakasleak eta gurasoak Euskaraldian parte hartzeraz deitzen.

## Ahobizi eta belarriprest, bi rol Euskaraldian parte hartzeko

Dagoeneko izena 'www.euskaraldia.eus' webgunearen bidez edo herriko batzordean eman daiteke

SAKANA

Euskararen kale erabilera neurtu zuten joan den urtean, eta haren emaitzen berri Altsasuko Iortia kultur gunea emanen dituzte asteartean, 19:00etan. Gauza jakina eta ikertua da Euskaraldia irauten duen bitartean jendeak euskara gehiago hitz egiten duela euskaraz. Ariketa kolektiboa horretarako baita, pertsonak aktibatuz, euskararen erabilera soziala handitzeko. Euskaraldia azaroaren 18an hasi eta abenduaren 2an despedituko da. Beti bezala bi rolen artean aukeratzeko aukera izanen dute herritarrek: belarriprest eta ahobizi. Aurreko edizioetan izena eman zutenek, parte hartzea berretsi baino ez dute egin behar, [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) gunean sartuta edo posta elektronikoa jasoko dituzten mezuen bidez. Gainera, euskaraz hizketatzeko espazio seguruak, ariguneak,

sortzeko aukera dago lastailaren 31ra arte. Arigune izan daitezke mota guztietako elkarteak, entitateak, dendak, lantokiak, enpresak kuadrillak...

Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari Kike Amonarrizek aurkezpenean: "gizarte osoari, gizarteko sektore eta erakunde guztiei dei egiten diegu aurten go ariketan parte hartzeko". Euskaraldia maila indibidualean nahiz kolektiboan egin daitezkeela nabarmendu zuen, eta, bide batez, ariketa sozialaren helburua gogorarazi zuen: "erabilera dinamikak abiatzeko edo indartzeko aukera paregabea da". Gainera, "bakoitzak gure lorpenak eta erronkak plazaratzera" animatu zuen, "hau ez baita euskararen aldeko egitasmo bat, erabileran pauso zehatzak emateko ariketa baizik: bai herritarrendako eta baita erakunde eta gizarte eragileendako ere".

EGUN ON SAKANA

egunero 10:00etatik aurrera goizetako konpainiarik hobereena!

107.3 FM eta GUAIXE.EUS

beleixe 107.3 FM

# Olazti Naturako kideek aitortza jaso dute

Festetako etxajua piztu zuten atzo. Naturaren kontserbazio eta hobekuntzarako programa da Olazti Natura. Hainbat programa dituzte, eta haien bidez ingurumena hobetu nahi dute. Ibaia garbitu eta gau hegazti harrapariendako habiak jarri dituzte

**Alfredo Alvaro Igoa** OLATZAGUTIA  
Taldean esker oneko sentimendua dute atzo festei hasiera eman ondoren. Olazti Natura duela bi urte sortu zen. Pandemian zerbait egin beharra zuen, eta Olaztagutira ezkonduetako Felipe Bernardo Morok pentsatu zuen sorterrian, Salamancan, "funtzionatu eta emaitzak ematen dituen naturaren babeserako programa" Olaztagutian ere ezar zitekeela. "Ez da gauza bera, baina funtsa bera da", argitu du Bernardok. Horrela, Olaztagutiko natura eta biodibertsitatearen kontserbazio eta hobekuntzarako programa sortu zuen, "Burundara eta Sakanara zabal daitekeena, behar berak eta ingurune baliabide antzekoak ditugulako".

Olazti Natura programak hainbat plan, ekintza eta proiektu aurreikusten ditu, "guztiak ere, ingurumeneko hainbat aspekturen hobekuntza lortzeko, batez ere espezie batzuen berreskuratze eta kontserbazioari begira". Horretarako, lehenik, Olaztagutian dauden animalia moten inbentarioa egin zuen, bakoitzeko zenbat espezie dauden argituz. Horretaz aparte, "olaztiarrek eta, bereziki, haurrek ingurumen gaietan kontzientzia hartzeko



Ibaia garbitu zuten egun batean jaso zuten zikinkeria. OLAZTI NATURA

hitzaldiak, erakusketak eta tailerrak egitea aurreikusitakoak dute.

2020an eta 2021ean gaueko hegazti harrapakariak (hontzak, urubi, hontz ertain eta apo hotza) kafiak egiteko kutzak jarri zituzten, kasu batzuetan saskiak. "Jendeak gero eta gutxiago ikusten dituela esan zigun eta haiek ugaltu eta babesteko jarri genituen". Bost jarri dituzte Ziordian eta Olaztagutian eta Altsasun bi jarri nahiko lituzkete.

Aurtengo martxoan ibai ertzak garbitzen hasi ziren. Ziordiko mugaren eta porlandegiaren

arteko tartea garbitu dute 19 jardunalditan. "Saio bakoitzean lauzpabost zaku handi hondakinez betetzen ditugu, uralitak, bidoiak, txapak, bizikletak... denetarik atera dugu. Orain ederra da ibai zati garbia ikustea". Eta haien lana ikusita, ziordiarrek gauza bera egitera animatu ziren.

Aurreikusitakoaren artean dituzte: natura inbentarioa eguneratzea, gaztainondoak berreskuratzea, hainbat hegazti babesteko planak egitea, pinu-beldarra kontrolatzea eta abar.



Julia Cid eta Maria Pinto Balsera idazlea, kultur asteko pregoilaria.

## "Extremadura ezagutarazi nahi genuen elkartearekin"

**JULIA CID GONZALEZ** LA ENCINAKO ZUZENDARITZAKO  
Extremadurako elkarteak 20 urte bete eta ospatu ditu

ALTSASU

Hogei urte "hegan" pasa zaizkio Cidi. La Encinak, Extremadurako kultur zentroak urteurrena kultur astearen baitan ospatu zuen. Bazkidetzeko aukera dago.

**Elkartearekin zer asmo zenuten?**

Extremaduratik etorritako jendea elkartzera, baina sartu nahi zuten guztiari atea zabalik utziz. Nahi genuen gure kultura oroituz, aldi behin elkartu, gure lurra bisitatu, Extremadura ezagutzera eman... Extremaduraz ere ez genekien asko, oso gazte ekarri gintuztelako; gurasoek kontatzen zigutena genekien. **Elkatea eta asoziazioa dituzue.**

Extremadurako kultur zentroa gara. Bagenuen jende pila kultur ekintzetarako eta ekitaldietarako bazkide zena. Gastronomía elkarteak ez genuen izan nahi, baina horretara eraman gaitu, bazkide gehienek bazkaltzeko edo elkartzeko toki bat nahi zuten. Biak batean ditugu.

**Zer moduzko osasuna du?**

Pandemia aurretik makaltzen hasi zen. Antzekoak ez diren kuadrillak elkartzean eztabaidak daude, eta batzuek utzi egin zuten. Pixka bat jaitsi ginen. Ginen bazkideen erdiak gara.

**Belaunaldi aldaketarik ba al dago?**

Ez dugu belaunaldi erreleborik. Seme-alabak gazteak direnean eta lagunekin bazkariren bat egin nahi badute, ekartzen dituzu. Baina independizatzean bakarrik uzten gaituzte.

**Pandemiaren ondoren, zer?**

Pandemian ez ginen elkartera etorri, Baina, jakina, gastuak

sortzen segitzen zuten. Beti izan dugu aurrezki txiki bat eta ongi mantendu ahal izan dugu. Pandemia ondoren jendea bueltatu da. Pixkanaka hasi gara etortzen. Orain kontuz ibili behar dugu: argindarraren prezioa igo da; neguari beldur diogu, berogailu gastuagatik... Gastu horiek eskuetatik ez joatea da kontua orain. Zeren 100 bazkiderekin eta 50ekin gastu bera sortzen da, baina ez da gauza bera. 50ekin ezin duzu egin lehen 100ekin egiten zenuena.

**Extremadurako Eguna, kultur astea... Gogoz bueltatu zarete!**

Gogotsu eta sasoitsu. Extremaduraren berri ematen segituko dugu. Ea jendeak laguntzen digun! Zeren adinekoenak diren bazkideak dagoeneko ez dira honaino jaistera ausartzen. Talde majoa zen. Ospakizunak egiten ditugu, baina haien falta izugarri sumatuko dugu. Eta jende berria etortzen bada, informazioa egoki emanen diogu: zer den Extremadura, zer sentitu eta sentitzen dugun... Nik Extremadura gutxi gozatu dut, baina maite dut. Hara noanean nirea balitz bezala sentitzen dut. Han zerbait dudant sentipena dut. Aldi berean, Altsasun familia dut, eta lur hau maite dut.

**"NAHI GENUEN GURE KULTURA OROITU, TARTEKA ELKARTU, GURE LURRA BISITATU, EZAGUTZERA EMAN"**

## Kofrade lizerratarak

San Migel kofradiako kideak, sanmigeldarrak, larunbatean elkartu ziren. Kofradiako 21 kideetatik 15ek ospatu zuten eguna. Haiek zaintzen duten ermitan hildako kofradeen aldeko meza egin zen. Ondoren, herritarrei auzatea eskaini zieten. Eta bazkaldu aurretik kontuak argitu, zegokiena ordaindu eta ardurak berritu zituzten.



SAN MIGEL KOFRADIA

# Mank-ek aurrekontuekin aurrera egingen du

Altsasuko Udalak aurkeztutako helegitea ez du onartu epez kanpo aurkeztu zelako. Udalak argudiatu zuen aurten ordaindu behar zuen kuota 'behar bezala justifikatu gabe' zegoela. Udalen kuotekin finantzatzeko Mank-ek bere zerbitzuak

SAKANA

Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 3. Atalak atzera bota du Altsasuko Udalak Sakanako Mankomunitatearen aurrekontu akordioari aurkeztutako gora jotzeko errekurtsua. Epaileek udalaren helegitearen mamia aztertu gabe, Mank-i arazoia eman diote eta Altsasuko Udalaren errekurtsua ez dute onartu epez kanpo aurkeztu zelako. Epaiazen kontra Administrazioarekiko Auzien Epaitegian helegitea aurkezteko aukera dago.

Altsasuko Udalaren iritziz, Mank-egin beharreko ekarpenak ez dira egokitzen Mank-en estatutuetan aurreikuspenekin. Udalak Mank-i aurten 734.319,66 euro ordaindu behar dizkio, joan den urtean baino 120.687,03 euro gehiago. Udalaren ustez, igoera hori ez dago "behar bezala justifikatuta". Baliabide propioak izateko Mank-ek tasak igo beharrean udalen ekarpena handitu zuela nabarmendu zuen udalak, eta Mank-i aurtengo aurrekontua berraztertze eskatu zion.

## Irizpideak

Epaia jakin ondoren, Mank-eko presidente David Oroz Alonsok zehaztu du aurrekontuetan jasotako kopuruak ordaindu behar dizkiotela udalek Mank-i. Gaineratu duenez, "Altsasuko Udalak eta guk gauzak ulertzeko beste modu bat dugu". Orozek azaldu zuenez, "pandemiatik atera berritan legez ezin ziren tasak ikutu. Gaizki egon zirenei edo establezimendua itxita izan zutenei hondakinen tasa igotzeko garaia ez zen".

Ur Zerbitzuan dauden udal batzuek uraren goi eta behe hornidura sareak Mank-ekin dituzte. Beste batzuek bakarrik goi hornidura, esaterako, Arakilek edo Altsasuk. "Azken horiek urez hornitzen ditugu eta kontsumitzen duten uraren arabera kobratzen diegu. Horrela erabaki



David Oroz Alonso hustutako Sakanako Mankomunitateko batzar aretoan. ARTXIBOA

## "FINANTZIAZIOA BERMATZEN EZ BADUTE UDALEK, EZINEN LITZATEKE EZER ESKAINI"

zen zerbitzua sortu zenean, eta bidezkoa da", esan du Orozek.

Udalak kontsumitutako m<sup>3</sup>-en araberrako ordainketa beharrean biztanleko kobratzea proposatu zuen. Orozen iritziz, "ezin du berdin pagatu ahalegina egin duen udal batek eta egin ez duenak. Arakilgo Udalak inbertsio eta ahalegin handiak egin ditu ur sareak berritzen eta ur ihesak kentzen erregistratu gabeko ur kopurua gutxitzeko. Altsasuko Udalak ahaleginak beste arlo batzuetan egin ditu. Ezin dute berdin ordaindu", borobildu du. Presidenteak jakinarazi du Altsasuko Udalak Mank-i ordaintzen dion kopuru guztiaren erdia uragatik dela. "Ur ihesetan galdutako urarekin Mank-ek ez du negoziarik egiten. Konponduta baleude ez guke Urdalurko ur tratamendu plantaren martxa behartuko", esan du.

## Finantziarioz

Oroz Urdiaingo alkatea ere bada. "Nafarroako Gobernuaren hainbat ekarpenen bidez udalek finantza nahikotasuna lortu dugu". Gobernuko arduradunei galdetu izan die mankomunitateek noiz lortuko zuten hori bera, mankomunitateak ere toki erakundeak baitira. "Gobernutik erantzun dute haiek udalei finantza nahikotasuna bermatu behar dietela, eta udalak izan behar direla mankomunitateak diruz hornitu behar dituztenak".

Azaldu duenez, "espero gabeko sarrera bat baduzu, udalen aurrekontuetan aldaketarako aukera dago. Mank-en ez dago horrelakorik", gaxtigatu du. "Normala denez, udalek eta sakanarrekin zerbitzu maila ikaragarria exijitzen diote Mank-i. Baina exijentzia horren atzean finantza konpromisoak egon behar du. Udalek bermatzen ez badute, miseriazko aurrekontuekin, ezin litzateke ezer eskaini", azaldu du Orozek. Nabarmendu duenez, "Mank ez da zerutik erori den zerbait. Ez du inork inposatu. Udalek sortutako erakundea da, zerbitzuak emateko".

## Mendialdeko garapen estrategia lantzeko, parte hartzea

4 lurralde bileren ondoren, Cederna-Garalurrek sektoreko 6 egingen ditu heldu den astean, 2 Irurtzunen

SAKANA

2023-2027 Nafarroako Mendialdeko toki-garapeneko estrategia lantzeko parte hartze prozesua garatu du Cederna-Garalurrek. Haren bidez, lurraldeko biztanleria eta erakunde garrantzitsuak bildu nahi ditu, eremu osoaren garapena bultzatuko diren proiektuak eta ekintza ildoak diseinatzeko. Estrategia gauzatzeko Europako funtsetatik 7 milioi euro baino gehiago jasoko dira 2023 eta 2027 artean, baliagarriak izanen direnak datozen urteetan Nafarroako

Mendialdean aldaketa neurriak aktibatuko.

Lurraldeetako bileren ondoren sektoreko sei mahai eratu dituzte: nekazaritzako elikagaiak; natura ondarea eta natura guneen kudeaketa; turismoa; merkataritza eta zerbitzuak; basogintza eta energia; enplegua, ekintzailletza, enpresa-sendotzea, artisautea eta industria; ondarea, kultura eta euskara eta bizi kalitatea. Lehen bi gaiak Irurtzungen kultur etxean aztertuko dituzte asteazkenean, 09:30ean eta 12:00etan.

## 2021EKO KALE-NEURKETA EMAITZEN AURKEZPENA

Urriak 4 18:30  
Altsasuko lortia kultur gunean



# "Kontseilaria entzunda, sekulakoa eman digutela dirudi"

**EIDER GARDE MAZKIARAN** HEZITZAILEA ETA NAFARROA 0-3 PLATAFORMAKO KIDEA Haur eskoletako aldarrikapenak ozen entzun ziren maiatzean eta garagarrilean, greban ziren bitartean. Baita ondoren ere. Greba pasata, ikasturte berria hasi dute

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Sakanan irailarekin batera zabaldu ziren Haur eskolak, baina Iruñerrian agorriaren erdialdeaz geroztik daude lanean.

**Behar bezala hasi duzue ikasturtea?**

Ez! Gizarte Departamentutik Hezkuntzara pasa ziren Nafarroako Gobernuaren menpe zeuden haur eskolak agorriaren leian. Hori Nafarroa 0-3 plataformaren aspaldiko aldarrikapena zen. Gainera, politikariek hainbat akordiotan jasota zuten. Berandu bada ere, iritsi da. Baina departamentu batetik bestera pasatzeko modua ez da egokiena izan. Hartu zuten lehen neurria izan zen langileek ordura arte zituzten lan baldintzak aldatzea, okertzea, eta ratioak igo dizkiete. Ez dute zutena mantendu eta Hezkuntza Departamentuaren baitan kaxkartu egin dira baldintzak.

**Esan zuten zuen soldatak igoko zituztela.**

Bai. Igoera bat egon da. Hezitzaileen kasuan 1.069 euro kobratetik 1.177 euroko soldatara pasa gara. Eskaintza hori gure eskakizunetatik oso urruti dago. Irailean ikusiko dugu hori kobratzen dugun edo ez, Hezkuntza Departamentuak argitaratutako ebazpenean udalei igoera ez aplikatzeko aukera ematen baitie. Ez dago bermerik soldata hori Nafarroan orokorra izanen denik. **Hezkuntza laguntzarako 55 kontratazio iragarri zituzten**

Bai. Baina etengabe ahazten zaie Nafarroan 103 haur eskola daudela. 55 kontratu horiek ez dira nahikoak. Plataformatik aldarrikatzen segitzen dugu Europako ratioetara gerturatu nahi dugula. Horretarako, eskoletan egungo hezitzaileen bikoitza behar da. Laguntza hiru, lau edo bost unitate dituzten haur eskolendako da. Gure kasuan, Arbizuko Kattuka haur eskolan, erabat betetako bost unitate izanda, lau orduko laguntza bat egokitu zaigu. Altsasun ere lau orduko ariko den hezitzaile bat tokatu zaie, baina oraindik ez da lanean hasi. Unitate bat edo bi dituzten haur eskolek ez dute laguntzarik izanen. Haur eskola txikiek, Nafarroan dauden %23k, ez dute laguntzarik jasoko. Hain justu landa guneetan dauden haur eskolak dira laguntza jasoko ez dutenak. Esandakoa, 55 horiek ez dira nahikoa, laguntza gehiago behar da.

**Joan den ikasturte hasierarekin konparatuta, aldatetako daude, baina**

"Baina" handi batekin. Carlos Gimeno Gurpegi hezkuntza kontseilaria hizketan entzuten baduzue sekulakoa eman digutela dirudi. Gure aldarrikapenei, nolabait, zilegitasuna kentzen die berriro ere, eskatzen ari gara eman omen digute: heziketa laguntzaileak eta soldata handiagoa. Askotan gutaz barre egiten duten sententzia dugu. 60

eguneko greba baten ondoren gobernuaren aldetik halako erantzuna jasotzea ez da serioa. Ez du inolako konpromisorik adierazten 0-3 zikloarekiko.

**Adierazi duzue borrokan segitzeko prest zaudetela. Navarra Sumak lege proposamena aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuan. Ostegun hura tramitera onartu edo ez eztabaidatu behar zen Parlamentuan, baina gobernuari eusten dioten alderdi eta koalizioek asteazkenean akordioa sinatu zuten. Zer iritzi akordio horren inguruan?**

Greba bertan behera uztean esan genuen itzuliko ginela, eta hala egin dugu. Navarra Sumaren lege proposamena ez da plataformarena. Guk gure lege proposamena aurkeztu genuen us-tezko negoziazio organo horretan. Ez zitzaion kasurik egin. Navarra Sumak lege proposamen bat egin zuen, aurrera zihoana. Negoziatio organokoa eta Navarra Sumaren legea mahai gainean zeuden, eta haien artean "hobere-na", edo gure helburuetatik gertuen zegoena, Navarra Sumaren proposamena zen. Horrela adierazi genuen publikoki, baita gobernuari ere. Gobernuari lege proposamena hobetzeko aukera eman genion. Erantzuna immobilismoa izan zen.

Nafarroako Parlamentuan lege proposamena eztabaidatu edo ez bozkatu behar zen ostegunean. Ez zen legea onartu behar, baizik eta tramitera onartu. Bat-batean,

bezperan, gobernuko lau indarrek eta EH Bilduk akordio bat sinatu zuten. Beteko den edo ez, mesfidantza dugu. 2015etik bete ez diren halako akordioak ikusi ditugu. Orain sinatutakoa aurretik sinatuta dago, eta ez da bete.

**Akordioak hiru puntu ditu. Batetik, alderdiek adostu dute heldu den urteko aurrekontuetan 4,3 milioi euroko diru partida sartuko dutela gobernuaren eta udalen langileen soldatak berdintzeko. Zuen eskakizuna zen?**

Gutxi gorabehera hori da gu eskatzen ari garen soldata. Ez da kontzeptu berdinetan banatzen. Gimeno jaunak esan du guk adierazitako osagarriekin igo nahi dutela soldata. Argi dagoena da 2023ko aurrekontuak ilbeltzean onartzea ezinbestekoa dela ilbeltzean bertan soldata igoera izateko, eta laguntzaile gehiago. 100 kontratazio egiteko akordioa itxi dute. Gu zain egonen gara, lehenik ea aurrekontuak onartzen diren eta ilbeltzean zer nolako nominak eta laguntzak iristen diren haur eskoletara.

**100 laguntzaile. Baina Nafarroan 103 haur eskola zaretela esan duzu.**

Bai. Kontratu prekarioen bidez, orain bezala, lau edo bost orduko kontratuak. Etengabe esaten ari gara Europak gomendatzen dituen ratioetara gerturatu nahi dugula. 100 kontratazio horiek motz gelditzen dira oraindik ere. Itunean jaso dute Europako ratioetara hurbiltzen joatea. Baina "datozen urteetan" esaten du. Egutegi zintzo bat zehazteko auzardiarik ez dute izan. Eta gauza bera komuneko kudeaketan ere. Plataformaren beste aldarrikapenetako bat da 0-3 hezkuntza ziklo publikoa izanda, komunean kudeatu dadila. Nahiz eta itunean aipatu, hori gauzatzeko datarik ez dute jarri.

**"LEGE PROPOSAMENA HOBETZEKO AUKERAREN AURREAN GOBERNUA EZ ZEN BATERE MUGITU"**

**"ORAIN SINATUTAKO AURRETIK SINATUTA DAGO, ETA EZ DA BETE. MESFIDANTZA DUGU"**

**Horrek, jakina, kezka sortzen dizue. Bai. Datak izan dituzten akordioak ez dira bete. Datarik gabekoekin, arrazoi osoz, mesfidantza dugu. Europako ratioak esaten duzue, zertaz ari zarete?**

Gaur egun Nafarroan 0 eta 1 urteko zortzi haur daude hezitzaile bakoitzeko; 1 eta 2 urteko hamabi haur hezitzaileko eta 2 eta 3 hamasei haur hezitzaileko. Ditugun ratioen erdia dira Europakoak. Han 0-1eko unitatean hezitzaile bat 4 umerekin egoten da, 1-2 urtekoen kasuan 6 ume eta hezitzaile bat daude eta, azkenik, 2-3koen unitatean lanean dagoen hezitzaileak 8 umeren ardura du.

**Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioan adostutakoaz harago, finantzazioaren handitzeak ez die udalei eraginen. Zergatik adostu dute hori?**

Galdetzen diozunaren arabera, lehia, talka edo guda bat dago Nafarroako Gobernuaren eta udalen artean. Hainbat udalek federazioari adierazi diote ez dagokiela haur eskolen kudeaketa, ez baita beraien eskumena. Hezkuntza ziklo bat izanda logikoena litzateke Hezkuntza Departamentuak zuzenean kudeatzea. Udal horien iritzi, beraie-na ez den ardura dute. Hori aurreneko eztabaida da. Bestea, finantza araudia. Suposatzen da udalek gastuen %24 ordaindu behar dutela. Udal gehienak hori baino askoz diru gehiago jartzen ari dira. Akordio horren atalik zabalenean lotu edo blindatu nahi da adostutako neurriek ekonomikoki udalengan eraginik ez izatea. Ez dakigu nola egingen duten. Horretarako, hainbat finantzaketa araudi aldatu beharra dago, eta horrela dago jasoa itunean.

**Akordioan jaso denez, udalek haur eskoletarako nahikoa finantza baliabide izateko haien gaineko eskumenak argitzeko hiru urteko epea jarri dute.**

Egun hauetan 2015az geroztik sinatutako akordioak errepasatzen nabil eta etengabe jasotzen den epe bat da. Baina betetzen ez dena. Egia balitz, elkar zorionduko dugu hemendik hiru urtera. Mesfidantza handia dugu.

**Eskaintza publiko integrala bermatzeko, 0-3 zikloa homogeneizatzeko akordioaren sinatzaileek Hezkuntza Departamentuarekin lan egingen dute. Zer iruditzen zaizue? Beraiek ere ez dute hori sinisten. Eskaintza horrek unibertzala**





Haur eskoletako langileak greban zehar egindako prentsaurrekoa. Eider Garde Mazkiaran, mahaian, ezkerrean. @EKINKLIK

eta abar izateko, berez, doakoa izan beharko luke. Gaur egungo kuotak oso garestiak dira. Nahiz eta etengabe esaten ari diren hedabideetan merkeagoa dela eta hainbat familiak ez dutela ordaindu beharrik. Oso errenta baxua duten familiek ez dute ordaindu beharrik. Baina ordaindu behar dutenek dezente ordaindu behar dute. Zikloa unibertsala nahi badute, lehen neurria doakotasuna izan beharko litzateke.

#### **Nahiago duzue lege bat akordioak baino, zergatik?**

Hainbat politika irakurketa daude. Iruditzen zaigu lege batek derrigortzen duela aurrekontuak elikatuta egotera. Guretake berme gehien ematen duena lege arautua egotea da. Politikari batzuek esaten digute hori ez dela horrela, lege bat izateak ez duela zergatik bermerik eman. Lege bat balego eta beteko ez balitz, plataformari salatze bidea zabalduko litzaiotke. Baina akordioak betetzen ez badira, ez da ezer gertatzen. Eta ez dugu inolako ibilbiderik betearazteko, edo, gutxienez, betetzea eskatze. Etengabe haiekin bildu eta, mesedez, akordioa betetzeko eskatzea. Borondate politiko hutsean gelditzen da. Ez daude derrigortuta akordioak betetzea. Horregatik egiten dugu lege baten alde.

#### **Aurrekontuak onartzeko zain?**

Lehenengo ikusi nahi dugu zer diru sail bideratu nahi duten. 4,3 milioi euro esan dute. Hala den ikusi nahi dugu, uzten badigute. Horrela bada, ilbeltzean indarrean sartuko den neurri bat izanda, iruditzen zaigu 2023 urterako ez dela nahikoa. Sartuko duten diru hori heldu den urteko abendura bitarte izanen litzateke. Argi esaten ari dira ez dutela beste ezer egiteko asmorik 2024ra arte. Gauden egoeran egonda, borondate gehiago behar da.

#### **Horregatik lanean segituko duzue.**

Bai. Asteburuan Iruñean mobilizazioak egon dira. Joan den ostegunean ere. Atzo batzar orokorra izan genuen Iruñean. Gurean segitzen dugu, gure hausnarketa egiten, egoeraren irakurketa egiten. Eta, horren baitan, mugimenduak egiten.

#### **Erabaki duzue federazioak eta departamentuak sortutako organoaren bileretara ez joatea. Zergatik?**

Erabaki hori aspaldi lantzen ari ginen. Behin eta berriz salatu dugu organo hori ez zela negoziatzeko mahaia. Horrela ikusarazi digute hilabete hauetan. Ez du balio izan gure aldarrikapenak islatzeko, baizik eta Nafarroako Gobernuaren iritzia jasotzeko, besterik ez. Maiatzaren 2an greba hasi behar zenez, organoa apirilaren 28an sortu zen. Baina aurretik akordio politiko bat zegoen eskatzen zuena federa-

zioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean lantalde edo organo bat sortzeko. Han landu behar ziren hezkuntza eta kudeaketa ereduak. Hasieratik sentitu genuen organoa sortu zela gure grebaren kontura itxura egiteko. Baina politikoki adostutako mahai hori balitz bezala mozorrotu nahi izan dute. Ez da erabili sortu zenerako, akordio politikoetan jasotako helburuak ez dira bete. Guretake negoziazio mahaia ez da izan. Ez zaigu baimendu edo ahalbidetu guk nahi genituen gaiak lantzea. Eragin-korra ez zela ikusita, erabaki genuen ez parte hartzea. Hainbat gairekin joaten ginen eta isilarazten gintuzten esanez haiek ez zeudela gai ordenan. Gonbidatu gisa parte hartzen genuenez, gai ordenarako gairik ezin genuen proposatu. Tranpa zen. Hasieratik salatu bezala, denborak arrazoia eman zigun.

Irailaren 7an izan zen azkenea. Eta hartan hezkuntza zuzendari nagusiak eskaini zigun sortu behar zuten mahai tekniko batean parte hartzea. Guk etengabe eskatu dugu horrelako guneetan parte hartzea. Baina haiek lantalde horretarako jarritako helburuak, oraintxe bertan, iriztezinak dira. Gauden egoeran gutxienekoak ez dira betetzen haiekin pedagogiaz hitz egiteko. Horretan ere ez dugula parte hartuko erabaki dugu.

#### **Han ere gonbidatuak zinatekete?**

Dozena bat pertsonak osatuko lukete, eta ez ginateke gonbidatuak izanen. Parte hartzaileak ginateke: federaziotik hiru pertsona, departamentuko 0-3 zerbitzuetik beste hiru, Nafarroako Gobernuko haur eskoletako hiru zuzendari eta plataformako hiru kide udal haur eskolen izenean. Baina ez dugu idatziz jaso ez egiturarik, ez helbururik, ezta edukirik ere. Proposamena ez zitzaigun serioa iruditu. Horregatik erabaki dugu parte ez hartzea.

#### **Hezkuntza laguntzarako 55 kontratazio iragarri zituzten**

Soldatena inportantea da. Baina guretake lehentasuna haur eskoletan umeen bizi baldintzek dute. Etengabe esan dugu. Badirudi soldata igoera honekin eta,

### **"ESKAINITZA HORREK UNIBERTSALA ETA ABAR IZATEKO, BEREZ, DOAKOA IZAN BEHARKO LUKE"**

### **"GONBIDATUAK GINEN, EZIN GENUEN GAIK PROPOSATU. ORGANOA TRANPA ZEN"**

batez ere, heldu denarekin gure borondatea, nolabait, erosi nahi dutela. Etengabe esan dugu: nahiago dugula mila euro kobratzen segitu eta lan baldintzak eta umeen bizi baldintzak egokiagoak izatea, gure soldatak hobeak izatea baino. Hala ere, ez dute nahikoa neurririk hartu. Ratioak ez dira bidezkoak. Etengabe ari gara politikariak haur eskoletara etortzera gonbidatzen eta ez dira ausartzen. Behin bideo bat eraman genien bai Parlamentura bai organora, ikus zezaten ume batek bizi zuen egoera halako ratioekin. Batzuek ezin izan zioten pantailari begiratu ere egin. Haiek jakitun dira zer ari diren bizitzen umeak, guk haiekin, eta, zeharka, familiak. Ez da egoera erraza. Lehentasuna ratioak dira. Baina edo ez dute serio hartzen, edo ez dakigu zein den arrazoia. Orokorrean ikusten dugu ez dagoela inolako borondate politikorik. Ratioen jaitziera 2015etik jasoa dago itunetan, eta 2022a bukatzean dago eta ratio berak ditugu.

#### **Eskakizun horrekin gurasoak aliatuak dira.**

Orokorrean gurasoak aliatuak dira. Greba oso gogorra izan da langileendako, haurrendako eta familiendako. Familiek haur eskolaren beharra dute. Denondako oso zaila izan da. Familiek ulertzen dute zer ari garen aldarrikatzen. Egunero ikusten dutelako zer nolako zailtasunak ditugun, haurren beharrak asetzeraz ez garela iristen. Haur horiek beraien seme-alabak dira. Oso erraza da gure aldarrikapenekin bat egitea.

#### **Bitartean, zer egingen du plataformak?**

Ez dugu etsiko. Urte asko darabagu. Badirudi orain serioago hartu gaituztela. Navarra Sumaren lege proposamena Parlamentuan aurkeztuzenez PSNk ezezko txosten bat egin zuen, aurrekontuen ildo hausten zuelako. Eta, bat-batean, ez dakigu nondik, heldu den urterako 4,3 milioi euro ateratu dituzte. Gure borroka atsegina edo eroso izan ez den arren, eraginkorra izaten ari da, halako aldarriketa politikoak izaten ari direlako. Borondatez ez bada ere, derrigortuak sentitzen dira; jendarteak sekulako babesa eman digulako. Ezin dugu begi-mugatik galdu maiatzean hauteskundeak direla eta horrelako gatazka batek ez duela saltzen.

# Erronkako irabazlea Adano elkarteak izan zen

Minbizia duten haurren Adano elkartearen aldeko Uharte Arakilgo elkartasun ekitaldiak babes handia jaso zuen. Arkaitz Jauregi irabazi zuen erronka gogorra, eta denetarik ekitaldiak egon ziren Adanoren aldeko diru bilketan

**Maidar Betelu Ganboa** UHARTE ARAKIL Nafarroako Adano elkarteak minbizia duten haurrei eta haien senitartekoei laguntza ematen die, eta larunbatean Uharte Arakilen antolatutako elkartasun jaialdian elkarteak laguntza ordainezin hori egiten jarraitzeko baliabideak bildu nahi izan ziren. Euria ari zuenez, Uharte Arakilgo pilotalekuak hartu zuen festa. Txikiendako puzgarriak, magoa, sekulako arrakasta izan zuen aurpegi margoketa eta tattooak –Maikampanillak eskainitakoak–, eta bestelakoak zeuden. Adano elkarteak ere bere postua jarri zuen eta han-hemenka Adano elkarteak zapi urdinak ikusten ziren, makina bat familia euren txikiek sufritzen duten minbiziaren oroigarri.

Zenbait gaztandegik, Arbizu txistorrak eta herriko dendek eskainitako produktuak baliatuz, pintxo solidarioak erosteko aukera zegoen, eta makina bat sari bikainen zozketa egiteko txarte-



Adanoko presidenteak eta boluntarioek ere oroigarria eta txaloak jaso zituzten.

lak saldu ziren. Guztia, jakina, Adano elkartearen alde.

## Kanako enborren miresmena

Ikusmin handiena kirol erronkak piztu zuen. Goizeder Beltza etxarriarrak, Iker Gorriti uharte

arakildarrak eta Arkaitz Jauregi Altsasun bizi den ilarduiarrak kanako enborra erdibitu behar zuten. Lana bukatutakoan, *Spiderman* ezizeneko Abel Fernandez korrikalari arabarrak hartu behar zuten Beltzaren txanda

Beriainera igo eta jaisteko. Arbizun bizi den Kepa Gordok hartuko zuen Gorritiren txanda, eta Jauregik ez zuen bikotekiderik; berak egingo zuen Beriaineraino korrika aizkora lanak bukatzean. Urbasatik jaitsitako 2,5 metroko zirkunferentziako enborra erdibitzea ez zen lan erraza izan. Jauregik hartu zuen aurea, eta bera abiatu zen lehena Beriainerantz, Xabi Ganboa korrikalariarekin batera. Iker Gorritik amaitu zituen lanak bigarren, Kepa Gordori bidea eginez, eta Goizeder Beltzak eman zion bidea *Spidermani*. Korrikalariak lanean zeuden bitartean jarraitu zuen festak, mariatxien ekitaldiarekin eta haurrek gidatutako zumba saioarekin.

Ia ezustean iritsi zen frontoira Arkaitz Jauregi, lehena. Lan guztiak kontuan hartuta, 1:40:12ko erregistroa egin zuen. Kepa Gordo berehala sartu zuen –Gorritiren lanarekin batera 1:44:57 izan zen denbora– eta *Spiderman* hirugarren (2:03:57, Beltzarekin batera). Gordok gertu izan zuen Jauregi, "baina ezinezkoa izan zitzaidan harrapatzea. Alde gehiagorekin atera zen eta lasterketa oso ona egin zuen".

Bukaeran, zozketako opariak banatu ziren, eta erronkan parte hartu zuten guztiei txapela eta aureskua eskaini zitzaizkien. Adanoko presidente Olaia Juarezek eskerririk beroenak eman zizkien ekimen solidarioko antolatzaile eta boluntario guztiei.

## "Nahi duena izan daiteke kolaboratzaile"

**HODEI ARADA** ADANOKO IDAZKARIA

### Zeintzuk osatzen duzue Adano elkarteak?

Juntan batez ere haurrak minbiziak gaixo ditugun gurasoak gaude, baina kolaboratzaileen eta bazkideen artean denetatik dago. Nahi duen oro izan daiteke.

### Semea gaixotu zenean, Adanoren babesa eskertu zenuen?

Erabat. Laguntza ematen dute, kolaborazioa, egoera berean dauden beste familia batzuk ezagutzen dituzu... Babes handia da, halako egoeran beharrezkoa, minbizia sekulako shocka delako, ez duzuna espero.

### Zer eskaintzen du Adanok?

Ume onkologikoei eta bere familiei laguntza psikologikoa, soziala, ekonomikoa... Lau langile ditugu: psikologoa, familia laguntzailea, gizarte hezitzailea eta administraria. Familiek behar dutena asetzen saiatzen gara. Kanpoko erietxeetan badaude etxea lotu, denetarik.

## DUELA 25 URTE...



## La cigarrillak, urtebete

14 eta 18 urte arteko hamar gazte olaztiarrek osatzen zuten txaranga, Gorka Esteban etxarrendarrak ezik: Pedro Zabala, Jon Azkargorta, Jose Javier Camuel (tronpetak), Jon Garasa eta Iñaki Camuel (saxofoiak), Sebastian Aierdi (bonboa), Aritz Zabala (txindata), Alain Lopez (kutxa) eta Sergio Gastamintza (tuba). 1996ko ihoteetan herriko ehiztarien afarian jo zuten, eta handik sortu zen La Cigarrilla txaranga.

## "Gaur Adanoren alde elkartasun handia lortu da hemen"

**ARKAITZ JAUREGI GORROTXATEGI** ERRONKAKO TXAPELDUNA

### Zu izan zara kanako enborra moztu eta Beriainera igo den bakarra. Hala ere, txapelduna.

Ez nuen espero. Lan guztia bi ordu azpitik egiten banuen oso lan ona izango zela uste nuen, eta gehiago jaitsi dut. Gustura sentitu naiz.

### Kana bat zen.

Bai, egur handia. 17 minututan moztu dut, denbora polita, bigarren aldetik adarra atera zaidala kontuan hartuta. Aizkoran nuen guztia eman dut eta jota bukatu dut, baina pultsazioak pixka bat jaitsi zaizkit, korrika trote txikian hasi naiz, eta ongi.



### Bizpahiru aste eskas izan dituzu prestatzeko. Korrika oso denbora ona egin duzu.

Oso kontentu nago, Beriaingo gainean 50 minututan nengoelako. Hori, niretako, oso denbora ona

da. Entrenatu dudanean ez dut lortu, baina gaur bai.

### Zerk bulkatzen zintuen? Kepa Gordo atzean segika zenuela?

Gertu zegoen, bai. Laguntza handia izan dut. Xabi Ganboak markatu dit erritmoa; eta Ana Carmen Huartek lagundu dit hidratazioa eta gelak emanez. Igoera guztian indartsu sentitu naiz.

### Oso gertutik ezagutzen duzue Adano elkarteak, eta irabaztea, agian, ederrago izan da.

Polita izan da, baina nik uste dut kirolari guztiak irabaztera ateratzen garela. Dena den, gaur irabazi duena Adano elkarteak izan da. Elkartasun handia lortu da hemen. Jende asko etorri da eta hori nahi zen, dirua lortzea, gaixo dauden umeak baliabideak izateko eta sendatzeko.

# Esku hartze Globaleko lehen Plana indarrean da

Zumalakarregi plazako 1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7 eta Bake kaleko 36, 38 eta 40 zenbakietako bizilagunen komunitateetako etxebizitzak hartzen ditu. Ingurutzaila berritu eta igogailua jartzen badute, komunitateek laguntza handiagoak izanen dituzte

## ALTSASU

Altsasuko Udala eraikinak zaharberritzeko dirulaguntzei buruzko ordenantza 2019 akaberan tramitatu zen, eta apirilaren 2an sartu zen indarrean. Tarte horretan udalak lehentasunezko birgaitze eremu izendatu zituen Zumalakarregi plazako 1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7 zenbakietako eta Bake kaleko 36, 38 eta 40 zenbakietako bizilagunen komunitateak. Izan ere, etxebizitza horiek guztiek Obra Sindikalak XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan sustatutako etxebizitza motei dagozkien eraikuntza ezaugarriak dituzte. Altsasuko Udalak eremu horretarako esku hartze globaleko plana egin zuen 2021ean, eta planak Nafarroako Gobernuaren oniritzia jaso du orain.

Onartutako planak ez ditu etxe jabeak zaharberritze lanak egitera behartzen. Baina etorkizuneko komunitate horietakoren batek eraikinaren ingurutzaila berritzeko lanak egin nahi baditu, edota horiekin batera arkitektura oztopoak kendu (igogailua jarri), planean onartutakoaren arabera egin beharko du. Horren helburua da inguru horren irudi homogenea lortzea helburuarekin, eta horrek ere espazio publikoa biziberritzea lortzen du, eta, era berean, 2019an eta 2020an Zumalakarregi plazaren eta inguruko kaleen berritze lanen jarduera osagarri bihurtzen da.

## Dirulaguntza

Altsasuko Udalaren eraikin zaharberritzerako bi motako dirulaguntzak aurreikusten ditu: ingurutzaila termikoa berritzeko, eta hori eta igogailua jartzeko. Beti ere etxebizitza erabilera badute eta lehentasunezko birgaitze eremuetan badaude. Udalak lanen exekuzio materialaren aurrekontuaren %4aren adinako dirulaguntza emanen du.



Eraikinak birgaituz gero Zumalakarregi plazak izanen lukeen itxura. ALTSASUKO UDALA

Javier Ollo Martinez alkateak gogorarazi duenez, "lehentasunezko birgaitze eremu batean eta, ondorioz, Esku hartze Orokorreko Plan batean sartuta dagoen eraikin baten birgaitzeak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza %40tik %50era handitzea dakar". Altsasuko Udalaren asmoa da Esku hartze Orokorreko Plan gehiago onartzea inguruko kaleetan, beti ere, eraikinek antzeko ezaugarri arkitektonikoak baitituzte.

## Etorkizuneko nola

Esku hartze globaleko lehen planaren bidez Altsasuko Udalak ezarri du nola egin beharko diren zaharberritzeak komunitate horietan. Horretarako kontuan izan du prezioa/prestazio erlazio hobea irizpidea. Horregatik, ingurutzaila termikoaren birgaitze eraginkortasun energetikoko irizpideen arabera egin beharko dute, beti ere Eraikuntzaren Kode Teknikoa eta Ziurtapenaren gaur egungo eskakizunetara egokituz.

Eraikinen fatxada nagusietan eta atzekoetan kanpoaldetik jarritako isolamendu termikoko sistema aukeratu da. Hau da,

dentsitate handiko porespan trinkoko plakak fatxadan itsatsi edo torlojuen bidez finkatzen dira. Haren gainean oinarritzko kapa bat jartzen da ondoren errefortzuzko sarea eta morteroa jartzen dira. Bukatzeko, guztia margotu egiten da. Lehen plan horretako fatxadetarako kolore txuri edo argiak erabiliko dira.

Udalak erabakitakoaren arabera, errehabilitazioa egin ondoren, leihoek itxura estetiko bera eta antzeko portaera termikoa izango dute, indarrean dagoen araudia betez. Jarriko diren leiho berriak kanpoko estalduraren kolorearen arabera izango dira, baita pertsiana ere. Indarrean dagoen araudi teknikoa betetzen duten eraikineko leihoak mantendu daitezke, baina pertsianen eta arotzeriaren kolorea proiektuan zehaztutakoa izatea eskatuko da. Hala ez bada, margotu egin beharko dira. Leihotik fatxadara arteko tartea aluminio estrusionatuzko eta lakatuzko xafarekin egingo dira, zurgintzaren kolorearekin eta fatxadaren kolorearekin bat etorritik, eta isolamenduarekin, zubi termikoa saihesteko.

Terrazak mantenduko dira jabeek hala nahi badute. Kasu horietan, terrazetako fatxada gainerako fatxadaren antzeko sistemarekin egingen da, eta kartoi-igeltsuzko sabai faltsu bat jarriko da, isolamenduarekin; forjatuaren aurrealdeak, berriz, aireztatu gabeko fatxada sistema baten bidez egingen dira, aluminiozko panelaren akaberearekin. Begiratokiak dituzten etxebizitzetan, horien ordez beste leihoen antzeko prestazioak eta ezaugarriak dituzten begiratokiak jarriko dira.

Bestalde, lehortzen ari den arropa bistan ez gelditzeko elementu metalikoak egingo dira, eta bigarren mailako fatxadetan jarriko dira. Teilatuari dagokionez, kode teknikoak eskatzen duen isolamendu termikoa gehituko da. Azkenik, Zumalakarregi plazako behe solairuko lokalen bat etxebizitza erabilera hartuko balu, haren akabera materialak eraikineko gainerako etxebizitzetako antzekoak izan beharko litzateke. Azkenik, fatxadetan dauden instalazioak aireztatuko aire ganberako espazioan sartuko lirateke.

22/10/09

# EUSKAL HERRIKO ERDIGUNERA MARTXA

**08:45 Irteera**  
Senosiainetik (Askan)

**09:30 Irteera** Irañetan (Irañetako Bordan)

**11:30 Ekitaldia**

**13:30 Pintxopotea**  
Irañetako bordan

**14:30 Bazkaria**  
Irañetako bordan  
Lakuntzako baba txikiak

**Eman izena: 620 190 277**  
**Azken eguna: urriak 7**

**ANTOLATZAILEAK**



Departamentuaren Nazioarteko Erakundeak









## FESTAK



## UHARTE ARAKIL

## SAN MIGELAK

## IRAILAK 30 Ostirala

12:00 Erraldoiak eta buruhandiak.

13:00 Auzatea.

14:30 Jubilatuen bazkaria.

17:30 Herri kirolen erakustaldia.

18:30 Buruhandiak.

20:00 Play Back. Auzatea.

22:00 Zezensuzkoa.

24:00-04:00 Dantzaldia Muxutruk taldearekin.

02:00-03:00 Txoznan txupitoak euro batera.

Uharte Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta.

## URRIAK 1 Larunbata

10:00 Dianak.

Haurren futbito txapelketa.

12:00 Erraldoiak eta buruhandiak.

13:00 Kantirun taldearen emanaldia. Auzatea.

14:30 Paellada.

16:30 Pantxo Balbuenarekin bazkalondoa.

17:00 Haurrendako Jokai jolasak, Ibai kalean.

18:30 Txokolatada, Ibai kalean.

18:30-20:30 Eztanda Txaranga.

Uharte Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta.

19:30 Buruhandiak.

20:00 Auzatea.

20:00-22:00 Iratzar taldearekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

24:00-03:00 Iratzar taldearekin dantzaldia.

## OLAZTI

## SAN MIGELAK

## IRAILAK 30 Ostirala

17:00-19:00 Sormen tailerra: buztin tornua, buztin lana, teila pintura, San Migel plazan.

Euria egiten badu eskolako frontoian.

19:30 Afizionatu mailako pilota partidak, udal frontoian.

Mendiburu – Ibarrola /

Oskoz – Zabaleta

Olaetxea – Lazkoz /

Nazabal - Apezetxea

20:00 Bonba japoniarrak,

Intsumisioaren plazan.

Kakahuete, gazta eta

ordo banaketa, San Migel plazan.

20:00-22:00 Elektrokela

Elektrotxaranga.

20:30 Pintxopotea, gaztetxea.

Maisuenea gaztetxeak antolatuta.

23:30 Kontzertuak: Tirokatuak,

Galtza gorriak eta Haizkan taldeak, gaztetxean.

Maisuenea gaztetxeak antolatuta.

23:30 DJ Bull, Barandi taberna.

Barandi tabernak antolatuta.

## URRIAK 1 Larunbata

09:00 Dianak Olaztiko eta Ziardiko koroekin.

10:30 Olatzagutia-Urbasa XIV.

Mendi lasterketa.

Irteera eta helmuga San Migel plazan.

10:30 Haur lasterketak: moto

GP txikiak, 0 eta 4 urte bitarteko

haurrak, norberak bere motorra

eraman; oinezko lasterketak 4 eta 7

urte, 7 eta 10 urte eta 10 eta 13 urte.



UTZITAKOA

**EGIARRETA** Egiarretarrek festari emanda pasa zuten asteburua. Gustu eta adin guzietarako egitaraua prestatu zuten, eta hiru egunetan dantza, kanta, jan eta edanak, lehiaketak eta ikuskizunak nagusitu ziren.

Sutegi Taldeak antolatuta Olaztiko Udalaren laguntzarekin.

11:00-13:30 Jolas parkea,

Intsumisio plazan.

Euria eginez gero frontoian.

13:30 Olatzagutia-Urbasa XIV.

Mendi lasterketaren sari banaketa, San Migel plazan.

14:30 Herri bazkaria, San Migel

plazan.

Euria eginez gero kiroldegian.

Herri Mugimenduak antolatuta.

18:00 Trapu Zaharra konpainiaren

Turistrendo antzezlanaren

emanaldia, Intsumisioaren plazan.

Euria eginez gero frontoian.

18:30 Elektropikala

elektrotxaranga.

Maisuenea Gaztetxeak antolatuta.

20:00 Bonba japoniarrak,

Intsumisioaren plazan. Kakahuete, gazta eta ardo banaketa, San Migel plazan.

20:00 Egungo Sakanako mediku

ezaren egoeraren aurkako

elkarretaratzea, San Migel plazan.

Maisuenea Gaztetxeak antolatuta.

20:00-22:00 Gabenara taldearen

emanaldia, San Migel plazan.

22:00 Zezensuzkoa, San Migel

plazan.

23:30 Tekno gaua: Morti, Kulimery,

Buly, Iscom, Ander Arce dj-ak.

Maisuenean Gaztetxeak antolatuta.

00:00-03:00 Gabenara taldearen

emanaldia, San Migel plazan.

## URRIAK 2 Igandea

11:00 Erraldoi eta buruhandien

kalejira, Altsasuko gaiteroekin.

11:00-13:00 Txu-txu trenak, Intsumisioaren plazatik.

11:00-14:30 Artisau azoka,

Memoria Historikoaren Parkea.

Euriarekin Erburua kiroldegian.

Josgintza eta lenteria ikastaroaren

legaina eta zuzeneko lana.

Munduko arrozak, Memoria

Historikoaren Parkean.

Euriarekin Erburua kiroldegian. Parte

hartzailak: Sakana Harrera Harana,

Maroko, Nijeria, Ukraina eta

Erumania. Dastaketa: 14:00etan.

Sakanako Mankomunitateko

Anitzartean zerbitzuak, Sakana

Harrera Harana eta Oinarrizko Gizarte

Zerbitzuak antolatuta Olaztiko

Udalaren laguntzarekin.

16:00-19:00 Jokai. Mitologian

inspiratutako jolas parkea,

Memoria Historikoaren parkea.

Euriarekin eskolako frontoian.

Txu-txu trenak, Intsumisioaren

plazatik.

## Uharte Arakilgo sanmigeletako txupinazo morea

Herriko mugimendu feministak bota zuen atzo San Migelen ome-nezko festak iragartzen zuen suziria. Aurretik sareetan publikatutako bideo batean feministek esan zuten, "zoritzarrez denok ez dugu modu berdinean gozatzeko aukera izaten, erasoak jasaten jarraitzen baitugu". San-juanetan intentsitate baxuko hiru eraso egon zirela salatu dute, "nazkatuta gaude!".

Festa askeak, denondako gozagarriak eta parekideak nahi dituztela esan du mugimendu

feministak, "ez dugu inongo jarrera edo eraso matxistarik onartuko, ez bota begirada desatseginik, ez ukitu baimenik gabe, gogoratu baietarik gabe ezetz dela, utzi guri lasai eta nahi dugun moduan festaz gozaten, eskubide guztia dugu mozkortzeko eta ongi pasatzeko".

Erasorik ikustekotan nola jokatu azaldu dute ere: "Erasoa jasaten duenarengana joan eta laguntzarik behar duen galdetu, entzun eta ez jarri kontaktzen duena zalantzan, ez utzi bakarrik, erasotzailea identifikatu eta espaziotik kanporatu eta erasotuari salaketa soziala egiteko gonbitea luzatu".



Uharte Arakilgo Mugimendu Feministako kideak. UTZITAKOA





UTZITAKOIA

**OLAZTI** Haizkan talde urdiaindarraren kontzertua izanen da ostiralean 23:30ean Maisuenea gaztetxean, Tirokatuak eta Galtza Gorriak taldeekin batera.

18:00 La Cigarra txarangaren kontzertua, San Migel plazan. Euriarekin kultur etxean. Txarangako kide ohiei eskainitako kontzertua, eta beraiekin ez daudenei agur esateko modu bat, bereziki Jesus Lopez Jesusin-i.  
18:00 Naroa<sup>2</sup> bakarlariak, gaztetxean. Maisuenea Gazteteak antolatuta.  
20:00 Bonba japoniarrek, Intsumisioaren plazan. Kakahuete, gazta eta ardo banaketa, San Migel plazan.  
21:00 Zezensuzkoa, San Migel plazan.

## ITXASPERRI AGUR UDA FESTA

**URRIAK 1 Larunbata**  
16:30 Haurren txokoa: jolas eta tailerrak.  
17:30 Pantxika Lamurren helduendako antzerkia.  
19:00 Kontzertuak: Ane Martija bakarlarria eta Howdy taldea. Barra egongen da.

## ETXARRI ARANAZ FERIAK

### IRAILAK 30 Ostirala

20:00 Kostillada, gaztetxean.  
22:00 Techno gaua: DJ Garate, DJ Alfon, DJ Mikel Uri eta Dj Buly, gaztetxean.

### URRIAK 1 Larunbata

12:00 Etxarriko erraldoi eta

buruhandien konpartsaren kalejira. Ondoren, Euskaraldiaren izen ematearen hasiera, dantza eta auzate txikia.  
17:00 Talo tailerra, Saralegitarrekin.  
17:30-19:30 Buztin, eskultura eta teila margoketa tailerrak.  
16:00-20:00 Etxarriko Animalien erakusketa.

## Feriak Etxarri Aranatzen

Garai batean lastailaren lehenengo asteburuan Etxarri Aranazko festak ospatzen ziren, baina gaur egun feriak ospatzen dituzte etxarriarrek. Urriaren 1ean eta 2an ospatuko dituzte, beraz, Etxarri Aranazko feriak, eta udalak astebururako egitaraua prestatu du. Gazteteako kideek gaur, irailaren 30, ostirala, hasiko dituzte ospakizunak. Larunbatean erraldoi eta buruhandien konpartsak urte-

ko azken kalejira egingen du, eta arratsaldean Etxarriko animalien erakusketa izanen da. Igandean plazan eta inguruetan ekoizle eta artisau azoka izanen dira, baita mendira joan etorria ere. Arratsaldean pilota partidak jokatu dira frontoian.

Etxarri Aranazko ferietako ekimen garrantzitsuenetariko bat Sakanako Artzaien Gazta Txapelketa da. Igandean izanen da, 11:00etatik aurrera, kioskoan. Aurten hemezortzigarren txapelketa izanen da.

20:00 Auzatea Karriestu elkartearen eskutik. Salbea, elizak antolatuta.  
20:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia.  
20:00 Gurutz, Asier, Luis, Unai, Juan Ramon, Karlos eta gainontzekoen etxeratzearen aldeko giza katea. Etxera bidea gertu. Sarek antolatuta.  
22:00 Zezensuzkoa.  
23:00 Txorongo txaranga. Gazteteak antolatuta.  
00:00-03:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia.

### URRIAK 2 Igandea

09:00 Gaupaseruen karrera. Gazteteak antolatuta.  
09:30 Gurdi demetie. Gazteteak antolatuta.  
10:00-14:00 Elkoizle eta artisauen azoka. Ekoizleak: Lakabe ogiak eta pastak, Albi gaztak, Legarbe barazkiak, Harri Herri Nekazaritza barazkiak, Mendiko upategia ardoa, Artzeko borda ukenduak, Jeingenekoa behi esnekiak, Joxan ahuntz gazta, Lorentxo txerrikiak, Arizkurengo tienduka ukenduak, Erlan ezitia,

Sustrai ardi gazta, Casa Paulina marmeladak. Artisauak: Otero pilotagilea, Maider Telletxea ezpela, En cueros Larrutan larrua, Cucharero de Oiz egurra, Arte se escribe con amor lore lehorrak, Artalde artilea, Ion Dufurrena kaikuak, Larruzko eskuak larrua, Arkadio zura, Arantxa Arratibel zakuarekin koadroak, Maria Esparza zeramika, Txus Gurutzeta zilarra, Arrate Lizarralde saskiak eta otarrak, Erabili jantziak, Idoia Gabantxo moda etikoa.  
11:00 XLVII. Mendira Joan Etorria. Udaberri elkarteak antolatuta.  
11:00 Sakanako Artzaien XVIII. Gazta Txapelketa.  
11:15 Auzatea Larrañeta elkartearen eskutik.  
17:00 Nino Costrini zirko ikuskizuna.  
18:00 Pilota partidak, Euskerriari pilotalekuan: Neskak: Ruiz de Infante – O. R. de Larramendi / Iturriaga – Mujika 4 ½ barruan: Larrazabal / Zubizarreta Mutilak: Peña II – Arbizu / Bakaikoa – Eskiroz.  
18:30-21:30 Gauargi musika taldearen emanaldia.  
21:00 Zezensuzkoa.



Ricardo Palacios abeltzaina. ARTXIBOIA

**PORTUKO**  
ONGI PASA FERJETAN!

Altsasu: 948 563 822 (denda)  
948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988

**ETXARRI ARANAZKO  
FERIAK  
2022ko  
URRIAK  
1 ETA 2**



Familiak, gazteak, kuadrillak... giro ederra izan zen Bizikleta Egunean.

# Sakana bizikletan

**TXIRRINDULARITZA** Giro eta parte hartze ederra izan zuen Sakanako Mankomunitateak ibarreko txirrindularitza taldeekin eta klubekin antolatutako Bizikleta Eguna. Eguraldia ere Sakanako bizikleta festara batu zen

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Euria egingo ote zuen, eutsiko ote zion... zeruari begira ekin zioten Sakana punta batetik bestera bizikletan gurutzatzeko lanari. Sakanako Bizikleta Egunean izena eman zuten 265 sakandarrak autobusean iritsi ziren Ziordira, antolakuntzak antolatutako lau autobusetan eta bizikletak garraiatzeko behar izan ziren beste lau kamioietan hain zuzen ere. Zerbaki handiek kopuru handiak mugitzen dituztelako.

Txirrindulari asko Ziordian hasi eta bukaeraraino, Irurtzungo plazaraino iritsi ziren. Beste askok bere herrian bukatu zuten eguneko abentura. Eta beste batzuk Lakuntzatik abiatu ziren, bertan hamaiketako egiteko geldialdia egin baitzen. Ibilbide erdia zenez, batzuek han bukatu zuten euren lana eta beste batzuek han abiatu.

Barranka Txirrindulari Taldekoek ibilbide guztia zaintzeko lan bikaina egin zuten. Ibilbidea zabaldu eta itxi zuten, aurretik eta atzetik, inor ez despistatzeko. Txirrindularitza karabana foruzainek zabalten zuten, Burunda txirrindularitza klubeko autoarekin batera. Eta, atzetik, tropel ederra, adin guztietako haur, gazte, familia eta kuadrilzez betetako. Ibilbidea anbulantziak ixten zuten, baina, zorionez, ez zuten lan aipagarririk izan. Bizikletetan sortu ziren arazoez edo matxurez Muruzabal bizikleta dendako Joxi Lazkoz etxarriarra arduratu zen.

## Bizikleta festa

Sakanako Mankomunitateak antolatzen du Bizikleta Eguna, ibarreko bizikleta klubekin laguntzarekin eta hainbat babesleren ekarpenekin. Mank-eko Kirol

Zerbitzuko Dani Echavarri orientatzaileak aipatu duenez, "egun ederra izan zen. Jende askok eman zuten izena, 265 sakandarrak, ibarreko herri ia gehienetakoak eta adin guztietakoak. eta guztia ongi joan zen. Ez zen arazorik egon. Gainera, eguraldia ere ona izan zen. Kezka genuen, baina azkenean ateri mantendu zen, ez zuten euririk egin eta egun bikaina izan zen".

Ziorditik Lakuntzaraino martxa onean joan zen Bizikleta Eguna. Sakanako txoko ederretatik pasa ziren, eta herrietan jende gehiago batu zen ibilbidera. Lakuntzako atsedeanaldian Mank-ek freskagarriak banatu zituen, baina ogitartekoa norberaren ardura zen. Handik Irurtzuneraino abiatu zen tropela, Arakil martxa ederrean gurutzatuz eta Irurtzunerako ordu batak pasa helduz. Erronka, beteta.



Eguraldiak eutsi zion, eta ez zuen euririk egin.




Tropela, gutxinaka Irurtzungo helmugara iristen.



Barranka Txirrindularitza Taldearen irteera bat. BARRANKA T.T.

## BTT irteera, Burgosera

Mank-eko Kirol Zerbitzuak Barranka Txirrindularitza Taldearen laguntzarekin antolatutako martxa urriaren 30ean izanen da, Burgosen, Medina de Pomar eta Puente de Artea (53 km, 384 m desnibela). Izena ematea zabalik dago, Mank-en (10 euro).



Emakumeak Dantzalekun entrenatzen.

## Sakanako Emakumeen Atletismo Eskolak 11 urte

**ATLETISMOA** Urriaren 14an hasiko da, Altsasuko Dantzalekun, eta izena ematea zabalik dago

Sakanako Mankomunitateak, hainbat entitateren laguntzarekin, beste behin Sakanako Emakumeen Atletismo Eskola martxan jarriko du. 2011n abiatu zen lehenengoz eskola, eskari bati erantzuna emanez, emakume batzuk korrika ikasteko teknikak ikasi nahi zituztelako, eta, aldi berean, emakumeak elkartzeko beharra ikusten zutelako, gero ezagunak egin eta korrika egitera edo lasterketetara batera joateko. Orduetik Sakanako Emakumeen Atletismo Eskolak helburu berdinekin lanean jarraitzen du, Kirol Zerbitzuak bertan egiten den lana "oso positiboa" dela baloratzen duelako. Aurten bere 11. denboraldiari ekingo dio.

Joan zen urtean bezala, Maalen Beraza Etxarri irintarra izango da eskolako monitorea. Klaseak ostiral arratsaldeetan izango dira, Altsasun, Dantzalekuko atletismo pistetan, 17:00etatik 18:00etara. Aurtengo denboraldia urriaren 14an hasi eta maiatzaren 26an despedituko da, eta 29 saio izango dira guztira.

Izena ematea zabalik dago, Mank-eko Kirol Zerbitzuan, eta ikasturte osoko prezioa 50 eurokoa da. Izena ematen dutenek klasera joateko konpromisoa hartuko dute, eta ezin badute joan, justifikatu beharko dute.

# Ericeren erakustaldia Guara Somontanon

**MENDI LASTERKETAK** Mendi korrikalari arbizuarrak nagusitasun handiz irabazi zuen asteburuan Alquezarren (Huesca) jokaturako ultra trail ezaguna. Eguraldi kaxkarragatik 92 kilometrora laburtutako proba osatzeko ia 11 ordu behar izan zituen

**Maidar Betelu Ganboa** ARBIZU

Asteburuan Ultra Trail Guara Somontano jokatu zen, Alquezarren (Huesca). Euriak, berez oso latza eta teknikoa den lasterketa are gehiago gogortu zuen, eta traila erresistentzia proba izugarrian bilakatu zen. Ekaitzak iragarrita zeudenez, antolatzaileek 107 kilometrotik 92 kilometrora (4.500 m desnibel +) laburtu behar izan zuten proba, korrikalariaren segurtasuna bermatu eta gune arriskutsuenak ekiditeko. Gauerdian abiatu ziren irteeran zeuden 232 korrikalariak, Guara mendizerran eta Cañones parke naturalean jokaturako probari aurre egiteko.



Ander Ericek ordu erdi baino gehiago atera zion Julien Jorro frantziarrari. UTGS

# Urbasa-Andian bi lasterketa eder

**MENDI LASTERKETAK** Larunbatean 10:30ean jokatu da Sutegik antolatutako XIV. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa eta igandean, 11:00etan, Etxarri Aranatzek hartuko du lekukoa, Udaberrik prestatutako 47. Mendira Joan Etorrian

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA

Udazkenean bete betean gauden honetan, mendi korrikalariak bi hitzordu garrantzitsu dituzte asteburuan, biak Urbasa-Andia mendizerran jokatu direnak.

**Olazti, berrikuntzekin**

Lehena larunbatean 10:30ean abiatuko den XIV. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa da. Sutegik Olaztiko Udalaren laguntzarekin antolatutako proba bi urteren ondoren bueltan da, pandemia dela eta azken bi edizioak ez baitziren jokatu. Eta bueltan da nobedade garrantzitsuekin.

Lehena da Olatzagutia-Urbasak ibilbide bakarra izango duela,



Olaztiko proba bueltan da.

(15,23 km eta 900 m desnibel +), aurreko lasterketako ibilbide laburra. Izena eman duten 102 partaideak Olaztiko San Miguel plazatik abiatuko dira Urbasako txoko zoragarrietatik barna ibiliko dira korrika: portu zaharretik Tontorraundira igoko dira, eta Portugain, Morterutxo, Zelai handi, Bargagain eta atzera ere Morterutxotik pasa eta gero, Urbasako Parkeko harrerako etxearen atzetik Olaztirantz jaitziko dira, San Miguel plazara.

Beste berrikuntza da, mendi lasterketa jokatzeko ari den bitartean Olaztin haurrendako lasterketak antolatu dituztela: GP motorrak (0-4 urte bitarteko

Arbizun bizi den Ander Erice ikusgarri aritu zen eta helmugara bakarrik iritsi zen, traila osatzeko ia 11 ordu behar izan ondoren (10:55:40). Ericek Lehia estua izan zuen Julien Jorro frantziarrarekin, baina azkenean Jorro bigarren sartu zen, ordu erdira (11:26:74). Emakumezkoetan Maryam Bethault frantziarrak erakustaldi bikaina egin zuen, garaipen sendoa lortuz (12:46:00). Ia ordu bat atera zion Anna Olivares bigarrenari (13:48:15).

Ander Erice "oso pozik" dago. "Ultra traila oso ondo prestatu nuen eta aurrean egoteko aukera nuela pentsatzen nuen, baina halako lasterketa luzeetan zer gertatuko den, zalantzak izaten dira beti. Gainera, gainontzeko korrikalariak nola zeuden ere ez nekien. Horregatik, garaipenagatik pozik nago" dio.

Denboraldi bikaina darama Ericek. Maiatzean Baigorriko Euskal Trails ultra traila (133 km) irabazi zuen, eta uztailean bigarren sailkatu zen Ehunmilaken (168 km). Guara Somontano irabazita, 2023ko mendi denboraldian du burua, aukera ezberdinak aztertzen.

haurrendako), eta 4 eta 7 urte bitarteko, 7 eta 10 urte arteko eta 10 eta 13 urte arteko haurrendako lasterketak. San Miguel festak direnez, haurrendako puzgarriak eta beste izanen dira.

**Etxarri, 47 urtez**

Etxarri Aranazko feriak ezin dira ulertu Udaberri elkarteak hainbat entitateren laguntzarekin igandean antolatutako Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorria mendi lasterketarik gabe. Aurten 47. edizioa jokatu da, 11:00etan abiatuko da eta lasterketak ez du aldaketarik: Etxarriko plazatik abiatuta, Urbasa-Andiako Bargara igo beharko dira korrikalariak, Hartzabale- ra, Maiatza jartzen den tokira, eta handik plazara jaitzi. 10 km eta 557 m desnibel + dituen lasterketan izena ematea zabalik dago, Kronoak webgunean.

Joan zen urtean euria gogotik ari zela jokatu zen lasterketa eta duela bi aste Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalean bigarren sailkatu ziren Mikel Beunza (45:24) eta Maria Ordoñez (52:14) gailendu ziren. Ordoñezek errekorra apurtu zuen, lau segundotan.

## FUTBOL PREFERENTEA

## 3. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Beriain - Altsasu	1-4
Lagun Artea - Salesianos	0-0
Ilunberri - Etxarri Aranatz	1-2

## SAILKAPENA

## PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Universidad de Navarra	9
5	Altsasu	6
10	Etxarri Aranatz	4
15	Lagun Artea	2

## HURRENGO JARDUNALDIA

## LARUNBATA, URRIAK 1

16:30	Etxarri A. - Lagun Artea (San Donato)
18:30	Salesianos - Altsasu (Salestarak)

## Lehen derbi sakandarra, Etxarri

Larunbatean denboraldiko lehen derbi sakandarra hartuko du San Donato futbol zelaiak, Etxarri Aranatz eta Lagun Artearen artekoa. Etxarriarrak garaipen baten ondoren iritsi dira partidara eta ferietan daude, ospakizun gehiagoren gosez. Lagun Artea ez du oraindik garaipenik lortu, baina joera horri buelta eman nahi diote.

## Altsasu, salestarretan

Altsasuk gol festa ederra ospatu zuen aurreko asteburuan Beriainen kontra, eta gorritxoek garaipenaren bidetik jarraitu nahi dute. Salesianos dute zain.

## PREFERENTEA EMAK.

## 1. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Idoia	0-1
-----------------	-----

## SAILKAPENA

## EMAKUMEEN PREFERENTEA 1. MULTZOA

1	Universidad de Navarra	3
6	Altsasu	0

## HURRENGO JARDUNALDIA

## IGANDEAN, URRIAK 2

12:00	Lagunak - Altsasu (Barañain)
-------	------------------------------

## Barañainen jokatu du Altsasuk

Lehen jarduna galdu eta gero, Altsasuko neskek Lagunak dute areriko.

## FUTBOL ERREGIONALA

## 2. JARDUNALDIKO EMAITZA

San Ignacio - Altsasu B	2-3
-------------------------	-----

## SAILKAPENA

## ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	San Jorge	6
3	Altsasu	6

## HURRENGO JARDUNALDIA

## LARUNBATA, URRIAK 1

17:00	Altsasu - Gazte Berriak (Dantzaleku)
-------	--------------------------------------

## Altsasu hirugarren postuan

Jokatutako bi partidak irabazita, hirugarren da Altsasu. Gazte Berriak du aurkari.

# Mastersari agur, eta Lau eta Erdiari ongi etorria

**PILOTA** Ezkurdia eta Zabaleta CaixaBank Masterseko finaleko txartelagatik lehiatuko dira gaur, ostirala, Nafarroa Arenan. Bakaikoak Lau eta Erdiko atariko jokatu du Agirreren kontra, eta Etxarri kaiolako txapelketako beste atariko bat hartuko du etzi

## Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Pilota mundua bor-borka dago. Batetik, CaixaBank Mastersa erabakiko da, eta, bestetik, Lau era Erdiko bi atariko jokatu dira, bata Tolosan eta bestea Etxarri Aranatz.

CaixaBank Masterseko finalerdiek ikusmin handia piztu dute, eta Nafarroa Arenak sarre polita izango duela aurreikusuten da. Izan ere, gaur jokatuko diren finalerdietan egungo pilotari onenetakoak lehiatuko dira: Ezkurdia eta Mariezkurrena Jakaren eta Zabaletaren kontra, batetik, eta Altuna III.a-Imaz Irribarriaren eta Albisuren kontra, bestetik. Lau bikoteek igandeko final handian egon nahi dute eta, horregatik, partida ederrak espero dira. Sakandarrek finalista ziurtatu dugu, Ezkurdia edo Zabaleta, bietako bat igandean Nafarroa Arenan egongo delako.

## Joanes Bakaikoa, bitan

Txapelketa bat bukatu, eta bestea hasi. Nahiz eta oraindik aurkezpen formala ez egin, asteburu honetan hasiko da Lau eta Erdiko Txapelketa, bi atarikoekin. Joanes Bakaikoa etxarriarra izango da lehian sartuko den pilotarietako bat. Bakaikoak Agirre izango du aurkari larunbatean Tolosan. Etxarriarra



Agirreren kontrako oso partida garrantzitsua da Joanes Bakaikoarendako.

## JOANES BAKAIKOAK LAU ETA ERDIKO TXAPELKETAN SARTZEA DU JOKOAN AGIRREREKIN

sasoian dago, sentsazio onekin -Elordiri 18 eta 12 irabazi zion larunbatean Logroñon- eta txapelketan hasteko gogoz dago.

Etxarri Aranatzek hartuko du Lau eta Erdiko beste atarikoak, igandean. Ferietarako antolatatu

den jaialdiaren barruan, Zubizarreta III.ak Larrazabal izango du aurkari. Txapelketako partida bukatuta, Peña II.ak eta Aaron Arbizu etxarriarrak Joanes Bakaikoa etxarriarra eta Eskiroz izanen dituzte aurkari.

Olaztin San Miguelak ospatzen dituzte, eta afizionatuen mailako pilota jaialdia antolatu dute gaur, ostirala, 19:30ean. Emakumezkoetan, Mendiburu-Ibarrolak Oskoz-Zabaletaren kontra jokatuko dute, eta gizonezkoetan Olaetxea-Lazkozek Nazabal-Apeztearen kontra.



Roberto Martil, errehabilitazioan. XOTA

## ARETO FUTBOLA Roberto Martil kapitaina, osatze bidean

Osasuna Magna Xotako kapitaina, Roberto Martil, ostiralean lesionatu zen, talde nafarrak eta Jimbee Cartagenak jokatu behar zuten partidarako beroketa ariketak egiten arizela. Klub berdeak adierazi duenez, irurtzundarrari egindako mediku probek ondorioztatu dute kapitainak eskuineko abduktorean mikro haustura duela. Horrela, Imanol Arregiren taldeak bihar, larunbata, Manzanarenen kontra jokatuko duen liga partidarako baja izango da.

Bitartean Roberto Martil erre-kuperazio lana egiten ari da eta aurreikuspenak baieztatzen badira, Anaitasunan jokatuko den hurrengo partidarako jokatzeke moduan egongo da.

## AIZKORA Iban Resano, I. Mailako Euskadiko Aizkora finalera

Igandean Euskadiko Federazioak antolatutako I. Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu zen Elgoibarren. Guztira 10 aizkolarari aritu ziren, eta bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinebiko erdibitu behar izan zituzten. Paretsu hasi ziren lanetan, baina Jokin Urretabizkaia Basozabalek aurea hartu, aldea atera eta bera izan zen lanak bukatzen azkarrena (20:55), Hodei Ezpeletaren (21:51), Joxean Etxeberriaren (24:47), Xabier Zalduaren (25:45) Luis Txapartegiren (26:59) eta Iban Resanoren (27:19) aurretik. Aipatu sei aizkolarari hauek azaroaren 27an jokatuko dute txapelketako final handia, Bilbon.

## Binakako txapeldunen loraldia

Altunak eta Martijak Sanmateotako Binakako Torneoeko final handia irabazi zuten igandean, Jakaren eta Mariezkurrenaren kontra (15 eta 22). Etxeberrikoak atzealdea ongi lotu zuenean, Altunak erabaki zuen. Egungo Binakako txapeldunak uda nahiko kaxkarra bizi izan dute, eta garaipen garrantzitsu honek airea eta animoa eman die.



Martijak sanmateotako bere lehen trofeoa irabazi du, eta Altunak bigarrena.





Sakana Motorsporteko Mikel Mendinueta Telletxea arbizuarra, autoa doitzen.

# "Nire lehen lasterketa Urbasako Igoera izan zen"

**MIKEL MENDINUETA TELLETXEA PILOTUA**

**AUTOMOBILISMOA** Urriaren 8an jokatu den Urbasako Igoerarako autoa behar bezala prestatzen ari da pilotu arbizuarra. Bederatzi urte geroago, ilusio berbera du

**Maidar Betelu Ganboa** ARBIZU

Mikel Mendinueta Telletxea motorzalea da "zortzi urte nituenetik. Aitak eta osabak amaren herritik, Ezkurratik, pasatzen zen rally bat ikustera eraman ninduten eta ordutik oso argi izan nuen lasterketarako autoak gidatu nahi nituela". 19 urterekin bere lehen lasterketan parte hartu zuen: 2013ko Urbasako Igoera. Autoa urriaren 8an jokatu den Urbasako Igoerarako prestatzen ari zara. Atzera eginez, Urbasako Igoera izan zen zure lehen lasterketa.

19 urterekin erosi nuen nire lehendabiziko autoa, Citroen AX-a, eta auto horrekin nire lehen lasterketan hartu nuen parte, 2013ko Urbasako Igoeran, 21 urterekin. Gogoan dut sekulako urduritasuna nuela.

**"URBASAKO IGOERAK IZENA DU ETA AZKENEAN PILOTU ONAK ANIMATZEN DIRA LEHIATZERA"**

**Urbasako Igoera ez baita edonola. Izen handia du, eta Nafarroan probarik jarraituena da.**

Zalantzarik gabe, eta alde handiarekin, gainera. Urbasako Igoera oso ongi ezagutzen dut, baina badu berea. Hasiara azkerra da, eta tentuz ibili behar da, bihurtzeko arriskutsu pare bat daudelako. Goiko zatia teknikoagoa da. Denetatik du. Goiko bihurtzekoak ikusgarriak dira. Bai, ikusgarrienak dira eta teknikoak, baina behekoetan akaso arreta gehiago izan behar

da, eremu azkarra delako eta gurpilak hotzak daudelako.

**Gurpilak, buruko min ederra pilotuendako. Zein gurpil jarri, lehorrekoak, euritakoak, nola dauden...**

Bai, nahikoa buruko min, hemen azken uneraino ez baitakigu eguraldia nola dagoen. Gerta daiteke entrenamenduetan euria egitea, eta bigarren pasarako eguzkia ateratzea eta errepidea lehor egotea. Denetarako prest egon behar dugu.

**Lehen autoa, AX-a, nolako zen?**

Lasterketetarako erdi muntatuta zegoen, eta lagunekin batera azken prestaketak egin genizkion. AX-arekin lehengo lasterketa egin nuen bakarrik, gero autoz aldatu nuelako, orain erabiltzen dudana. AX-ak gauza asko kili-kolo zeuzkan, hobetu beharrekoak, eta bertan dirua gastatu beharrean beste auto bat erostea erabaki nuen. Guztiz prestatuta erosi, eta disfrutatu.

**Peugeot 205, auto mitiko bat erosi zenuen. Zergatik?**

Beti gustatu izan zaidalako. Nahiz eta nahiko zaharra izan, 80. hamarkadako, oso arina da. Matxura gutxi izan ditu. Altsasuko lagun bati erosi nion eta hark Valentziatik ekarri zuen, lasterketetarako ia egokituta: segurtasun barrak, sute itzalketako sistemak, deskonektatzaileak eta bestelakoak. Martxak oso motzak dira, indargetzaileak aldatuta ditu, freno hobeak... 2014 bukaeran erosi nuen eta ongi ibili da. Joan zen urtean aldatzekotan egon nintzen, baina kariñoa hartu diot eta mantendu nuen. Urtean bizpahiru lasterketa egiteko eta ongi pasatzeko nahikoa da auto hau.

**Pilotuek ezagutza mekanikoak dituzue, eta beharko.**

Bai. Erdi Mailako Mekanika zikloa egin nuen. Horri lagunekin bajaran sartutako ordu guztietan ikasten dena gehitu behar zaio. Bestalde, Arbizuko IAT-ITVan lan egiten dut. Beti auto artean.

**Zein lasterketatan aritzen zara?**

Tarteka Gipuzkoan, Araban eta Errioxan ibili izan naiz, baina gehienbat Nafarroakoetan.

**Nafarroako Mendi Igoera Txapelketan lehiatu izan zara.**

**"LASTERKETA BATEN AURREKO BI ASTEAK EROMENA DIRA: AUTOA BEHAR BEZALA JARRI BEHAR DA"**

Lehen Nafarroako Igoera Txapelketako ia proba gehienetan lehiatzen nintzen. Urtero zazpi-zortzi lasterketa ziren. 2016an eta 2017an Nafarroako Igoera Txapelketako turismoen kategorian hirugarren sailkatu nintzen maila absolutuan, eta 2016an junior mailako Nafarroako txapeladuna izan nintzen turismoe-tan. Polita izan zen.

**Txapelketa lortzeko, denboraldian ongi aritu beharra dago.**

Bai, eta horrek denbora asko kentzen du. Lasterketa baten aurreko bi asteak eromena izaten dira, autoa behar bezala jarri behar baita: frenoak errebisatu, injekzioak ongi erregulatu, denak ongi joan daitezen, motorra begiratu, guztia erreparatu, azken unean sortzen direnak konpondu... Bestalde, urte hauetan guztietan istripu larriarik ez dut izan. Zortea izan dut horretan.

**Noiz entrenatzen zarete?**

Lasterketa bat jokatu baino aste bat lehenago ibilbide horretan entrenatzeko aukera izaten dugu, ibilbidea probatzeko. Zenbat eta lasterketa gehiagotan aritu, orduan eta hobeki gidatuko duzu, arinago.

**Nola dago zure autoa?**

Ongi, Urbasako Igoerarako ia prest. Azken ukituak falta zaizkio. **Urbasako Igoeran zein da zure denborarik onena?**

Esango nuke 2017 urtekoa, 4 minutu eta 7 segundo.

**Aurten, zein da helburua?**

Lehendabizi, lasterketa bukatzea (kar, kar). Azkenaldian urtero hiruzpalau lasterketa egiten ditut. Aurten Olaztikoko Rallysprinta egin nuen Jon Zelaia bakalkuarra kopilotu nuela, gustura, eta Berako Ibardingo Igoera. Urbasa Igoera ongi bukatzen badut, beste bat egin nahiko nuke, urtea ongi despeditzeko. Igoerak gustatzen zaizkit rallysprintak baino gehiago.

**Urbasako Igoeran pilotu handiak bilduko dira?**

Gaur, ostirala, izena ematea itxiko da eta orduan jakingo dugu, baina pilotu garrantzitsuak etorriko direla uste dut. Urbasako Igoerak izena du eta azkenean jende ona animatzen da. Sakana Motorsportekoa naizenez, antolakuntzan ere bagabiltza eta kontentua.

**Motorzaleak Urbasara gonbidatuko dituzu?**

Jakina, Sakanako motor festara animatu daitezela, ongi etorriak izango dira!

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 30

## IRURTZUN Tailerra.

Tramankuluren jaurtigai jostailuen tailerra eta jolasak. Aizpea euskara taldeak eta Pikuxarrek antolatuta. 17:00etan, Gernika parkean.

## IRURTZUN Aurkezpena.

*Irurtzunen elkarbizi.* Kulturarteko elkarbizitzari buruzko diagnosiaren emaitzen aurkezpena. Irurtzongo Udalak, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak, Oinarrizko Gizarte zerbitzuak, NUPek eta Nafarroako Gobernuak antolatuta. 18:00etan, kultur etxean.

## ALTSASU Gazte Agenda.

Sexgunea. 18:00etatik aurrera, Intxostiapuntan.

## LAKUNTZA Batzarra.

Elai Alai dantza taldearen ikasturte hasierako bilera orokorra. 18:30ean, kultur etxean.

## ARBIZU Liburu aurkezpena.

Alberto Barandiaranen *Gurea falangista zen* liburuaren aurkezpena. 18:30ean, liburutegian.

## ALTSASU Euskaraldia: Musikiariak hizketan.

*Musikiariak hizketan* ekimena: Skabidean taldeko Nikolas Leonardo eta Antonio Iriarteren eta Ibil Bedi taldeko Amets Arangurenen hitzaldia. Aitziber Grados Munoa kazetariak aurkeztuta. 19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

## ALTSASU Elkarretaratzea.

*Azken ostirala: Preso eta iheslariak etxera.* Sarek eta Etxeratak deituta. 19:30ean, udaletxearen aurrean.

## LARUNBATA 1

## ALTSASU Gazte agenda.

Intxostiapuntaren irekiera festa. Bubble balls eta afaria. 17:00etatik 01:00etara,

*Intxostiapunta gazte gunean.*

## ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Sutan dantza taldearen *Barruak hautsiz* ikuskizuna. 19:30ean, Iortia kultur gunean.

## ITURMENDI Kontzertua.

In tempore abesbatzaren *The Holy Spirit Mass* emanaldia. Kim André Arnesen konposatutako abestia eta Carlos Etxeberriaren zuzendaritzapean. 20:00etan, elizan.

## IGANDEA 2

## ETXEBERRI Bisita gidatua.

Aixita gaztelura bisita gidatua. 2022ko Ondarearen Europako Jardunaldiak. *Ondare jasagarriak* programaren barruan. 10:00etatik 13:00etara, plazatik.

## ALTSASU Elkarretaratzea.

*Euskal preso eta iheslariak etxera.* 20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 3

## ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde. 12:00etan, udaletxearen aurrean.

## ALTSASU Jardunaldiak.

XIX. Mikologia jardunaldiak: Manolo Becerraren *Introducción a estudio de las setas con poros. Boletus y afines* hitzaldia. 18:30ean, Iortia kultur gunean.

## ASTEARTEA 4

## ALTSASU Aurkezpena.

2021eko kale neurketa emaitzen aurkezpena. Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak eta Soziolinguistika klusterrak antolatuta. 18:30ean, Iortia kultur gunean.

## ASTEAZKENA 5

## ALTSASU Jardunaldiak.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

*Dios mío, ¿pero que nos has hecho?* gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Ostirala 30 19:00  
Igandea 2 19:30

*Minions: El origen de Gru* familiarreko filmaren emanaldia  
Igandea 2 17:00

*La invitación* gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Osteguna 6 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

*Ali y Avan* zineforum filmaren emanaldia  
Osteguna 6 19:00

XIX. Mikologia Jardunaldiak: Jose Maria Ibarbia Laudioko eta Altsasuko Mikologia Elkarteko kidearen *Las setas y sus hábitats* hitzaldiaz. 18:30ean, Iortia kultur gunean.

## OSTIRALA 7

## ALTSASU Literatur jaialdia.

*Mi pueblo lee* literatur jaialdien landa sarea, Iortia kultur gunean. 18:00 Altsasuko idazleen

mahai ingurua euskaraz: Izaskun Etxeberria, Castillo Suarez eta Alberto Barandiaran. Victoria Álvarez Mussetik gidatuta.

18:50 Atsedenaldua. 19:00 Mikel Santiago idazlearekin topaketa.

## ALTSASU Jardunaldiak.

XIX. Mikologia Jardunaldiak: Irantzu Garcia Altsasuko Mikologia Elkarteko kidearen *La alimentación de los hongos, factor clave para el medio ambiente* hitzaldia. 18:30ean, Iortia kultur gunean.

## BAKAIKU Mustutze ekitaldia.

*Bakaikuarrok* herri kooperatibaren dendaren mustutze ekitaldia musikarekin eta abarrekin. 19:00etan, dendan.




IRURTZUN *Nueve* foto poema erakusketa. Urriaren 9ra arte. Pikuxar tabernan.




ETXEBERRI *Axitako gaztelua: Arakilgo zaindaria esku hartze* arkologikoei buruzko erakusketa. 2022ko Ondarearen Europako Jardunaldiak. *Ondare jasagarriak* programaren barruan. Irailaren 30ean 18:00etatik 20:00etara, urriaren 1ean 11:00etatik 13:00etara eta 2an 11:00etatik 13:00etara. Elizan.

## EGURALDIA ASTEBURUAN


## Ostirala, 30




## Larunbata, 1



## Igandea, 2



## Astelehena, 3



## IRAGARKI SAILKATUAK

GALDUTAKOAK/  
OPATUTAKOAK

## OPATUTAKOAK

**Erlouja Etxarri Aranazko parkean:** Ume baten erlouja parkearen ondoan opatu dute. Tom eta Jerry ageri dira erloujan, BELEIXE IRRATIAN dago jasotzeko.

## IKASTAROA

**Gaixotasun kronikoa duen pertsonaren zaintza profesionala Altsasun:** Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatutako ikastaroa langabetuei zuzenduta dago. Urriaren 3tik 28ra, 9:00etatik 14:15era, lortia kultur gunean izango da. Informazio gehiago 658 531 552 edo [formacion@incluyenavarra.es](mailto:formacion@incluyenavarra.es) emailen. Izen ematea Altsasuko Enplegu Zerbitzua-ren egoitzan.

## LEHIAKETA

**Arbizuko Txistor egune-ko pintxo lehiaketan izen ematea zabalik:** Udalak jakinarazi duenez 7 lehiakidera mugatuko du lehiaketa, jende gehiegok izena ematen badu zozketa egingo dute. Izena eman eta parte hartuko duten pintxo egileek, gastuengatik, 30 euro jasoko dituzte udalaren eskutik. Urriaren 6an amaitzen da izena emateko epea.

**Iruñeko Udalak Egile Berrientzako XXXII. Euskarazko Literatur Lehiaketa:** Egileek lan bana aurkezten ahaliko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librea izanen dute eta euskaraz idatziak izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak. Sari modalitateak: poesia (lanak gutxienez 200 bertso lerro izan behar ditu) eta narrazioa (lanak gutxienez

15 orri izan behar ditu Arial letra mota, 11 tamainakoa, tarte bikoitzaz). Lehen saria 2500 eurokoa eta bigarren saria 1000 eurokoa izango dira modalitate bakoitzeko. Epea urriaren 28an amaituko da. Parte hartu nahi baduzu [www.pamplonacultura.es](http://www.pamplonacultura.es) web orrian dagoen inprimakia bete behar da. Informazio gehiago web orri horretan ere.

## OHARRAK

**Uharte Arakilgo Sanmiguelako play back txapelketako izen ematea:** Gaur, ostiralarekin, 20:00etan, play back lehiaketa jokatu da udaltxeko plazan. Izen ematea 19:00etatik 19:30era. Abestia izena ematean aurkeztu behar da USB memoria batean. Kantua mp.3 formatua izan behar du. Udalak eskatu du aurkezten diren USB memoriaren abestia besterik ez egotea.

**Arbizuko Txistor egunerako deialdiak:** Arbizuko Udalak herritarrei lanerako deia egin die eguna behar bezala antolatzeko, izena emateko 618 235 315 telefonoan izena eman dezake. Azokan saltzen egon nahi dutenek 675 894 913 deitu egin behar dute.

**Aralarko San Migel Santutegiko beharrak ikusita:** erabiltzen ez den eremu bat egokitu nahi da santutegia bisitatzen dutenentzat, eta bertan

**Nabarmendu zure iragarkia**  
Modulo txikia:  
14,52 euro  
948 564 275

harrera lekua, kontrolgunea, denda eta komunak, baita interpretazio zentro berria eta kofradiaren egoitza ere. Zaharberri-tzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

**Konposta eskuragai:** Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du edonon har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOgune-ko konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

**Sakanako Mankomunitatearen Euskara zerbitzuko dirulaguntzak:** Euskaltegiendako, UEUn ikastaroak egin dituztenendako, euskara hutsez udalekuetara joan direnendako, euskara ikasten daudenendako eta Errotuluak (dendetan etab) euskaraz jarri dutenendako dirulaguntza deialdi ezberdin hauetan eskararak aurkezteko epea zabalik dago. Eskabide guztiak Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan edo egoitza elektronikoa-ren bidez aurkeztu behar-ko dira. Ez dira posta elektronikoko bidez jasotako eskabideak aintzat hartuko.

[iragarki@guaixe.eu](mailto:iragarki@guaixe.eu)

[www.iragarkilaburak.es](http://www.iragarkilaburak.es)

## JAIOTZAK

- **Francisco Emilio Jimenez Jimenez**, irailaren 22an Lakuntzan
- **Jannat Hassad Hamraoui**, irailaren 24an Altsasun

## HERIOTZAK

- **Cruz Lizarraga Larraza**, irailaren 21ean Lakuntzan
- **Marcelino Castellano Martin**, irailaren 21ean Altsasun
- **Mari Zabaleta Mintegui**, irailaren 26ean Altsasun
- **Maria Josefa Vidal Escribano**, irailaren 26an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

JARRI ZURE  
IRAGARKI LABURRA!  
948 56 42 75  
[iragarki@guaixe.eu](mailto:iragarki@guaixe.eu)  
[www.guaixe.eu/iragarkiak](http://www.guaixe.eu/iragarkiak)



## IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

[IRAGARKI@GUAIXE.EUS](mailto:IRAGARKI@GUAIXE.EUS)

[WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK](http://WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK)

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta [guaixe.eu](http://guaixe.eu)-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
[edo.eskelak@guaixe.eu](mailto:edo.eskelak@guaixe.eu)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK  
**ALTSASU**      **ETXARRI ARANATZ**  
Santa Cruz, 6      Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Getxon jokatu zen 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren lehenengo saioa. BERTSOZALE ELKARTEA

# Hasi da bertso txapelketa

Larunbatean eta igandean jokatu ziren txapelketaren lehenengo bi saioak Getxon eta Arrasaten. Urriaren 1ean, larunbatean, Gotaine-Irabarnen Eneko Lazkoz Martinez etxarriarra txapelketan mustuko da. Finalerako sarrerak amaitu dira

## ETXARRI ARANATZ

Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehenengo fasearen lehenengo bi saioak jokatu ziren Getxon eta Arrasaten aurreko asteburuan. Guztira, 1.300 lagun bildu ziren bi saioetan, lehenengoan 600 eta bigarrenengan 700; bi saioetako sarrerak agortu ziren. Eneko Lazkoz Martinez etxarriarra irailaren 24ko saioan aritzekoa zen, Getxon, baina azken orduko aldaketa bat izan zen eta Alaia Martin aritu zen bere ordez. Hortaz, urriaren 1ean, larunbatean, Gotaine-Irabarnen jokatu den lehen fasearen hirugarren saioan mustuko da Etxarriko bertsolaria txapelketa nagusian. Joseba Beltza Bengoetxea etxarriarra ere epaileen taldean parte hartuko du txapelketan.

Getxoko saioan Oihana Bartra Arenas, Nerea Elustondo Plazola, Agin Laburu Rezola, Peru

Abarrategi Sarrionandia, Unai Mendizabal Jauregi eta Alaia Martin Etxebeste bertsolariek parte hartu zuten Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehenengo fasearen lehenengo saioan. Imanol Artola Arretxe Felix gai emaileak gidatu zuen saioa. Ariketa puntuagarriak egin ostean, Alaia Martin izan zen puntu gehien bildu zituen bertsolaria, 738 puntu eta, beraz, zuzenean sailkatu da finalurrekoetara eta Elizondon kantatuko du urriaren 22an. Haren ondotik geratu dira Nerea Elustondo 695rekin, Agin Laburu 685rekin, Oihana Bartra 653,5ekin, Unai Mendizabal 635ekin eta Peru Abarrategi 627rekin. Horiek lehen faseko saio guztiak amaitu arte itxaron beharko dute finalurrekoetara sailkatu diren edo ez jakiteko.

Getxoko saioan epaile lanetan Egoitz Iradier Martinez de Al-

beniz, Eneko Bidegain Aire, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Ibaguren Olalde, Leire Belki Lizarralde, Miriam Juaristi Urizar eta Saioa Mitxelena Irazoki aritu dira. Idazkari lanetan Joxe Mari Altuna Etxabe eta Itziar Basterretxea Olarreaga aritu dira.

## Bigarren saioa

Arrasateko saioan Miren Amuriza Plaza, Iñaki Apalategi Astigarraga, Xabat Illarregi Martzol, Saioa Alkaiza Guallar, Joanes Illarregi Marzol eta Gorka Pagonabarraga Agorria

## ENEKO LAZKOZ ETXARRIARRA URRIAREN 1EAN ARIKO DA, GOTAIN-IRABARNEN

bertsolariek parte hartu zuten. Azken orduko kontu bat zela eta, Xabat Illarregik kantatu zuen Xabier Silveiraren ordez. Joanes Illarregi izan da puntu gehien pilatu dituen bertsolaria, 678 puntu, eta urriaren 22ko Elizondoko finalurrekorako txartela lortu du, Unai Agirre-ekin eta Alaia Martinekin batera. Illarregiren atzetik Saioa Alkaiza (673), Iñaki Apalategi (664), Xabat Illarregi (659), Miren Amuriza (646,5) eta Gorka Pagonabarraga (616) geratu dira. Igandean aritu ziren beste bost bertsolariek puntuazioaren arabera izango dute finalurrekoetara sailkatzeko aukera.

Bigarren saioan epaile lanetan Egoitz Iradier Martinez de Albeniz, Eneko Bidegain Aire, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Ibaguren Olalde, Leire Beloki Lizarralde, Miriam Juaristi Urizar eta Saioa Mitxelena Irazoki aritu ziren; idazkari lanetan, berriz, Ane Errazkin Aranburu eta Joxe Mari Altuna Berridi.

## Hurrengo saioak

Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehenengo faseko hirugarren saioa Gotaine-Irabarneko herriko gelan jokatu da urriaren 1ean, larunbatean, 17:00etan, eta bertan Eneko Lazkoz Martinez bertsolari etxarriarrak parte hartuko du. Lazkoz lehenengo saioan kantatzekoa zen, baina azken orduko aldaketa

bat izan zen, eta bere ordez Alaia Martin aritu zen. Lazkozekin batera Ane Labaka Mayoza, Julio Soto Ezkurdia, Nerea Ibarzabal Salegi, Oihana Iguaran Barandiaran eta Patxi Iriart Hiribarren ariko dira. Aritz Bidegain Aire izanen da aurkezlea.

Laugarren saioa urriaren 2an, igandean, 17:00etan, Gasteizko Maria de Maeztu entzunaretoan jokatu da, eta Amaia Iturriotz Etxaniz, Haritz Mujika Lasa, Iban Urdangarin Lardizabal, Manex Agirre Arriolabengoa, Miren Artetxe Sarasola eta Xabat Gallettebeitia Abaroa bertsolaria ariko dira.

Bertsolariek, binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian eta hiruna bertso zortziko txikian egin beharko dituzte; gainera, banaka, lehen puntu emanda, hiru bertso zortziko txikian kantatu beharko dituzte. Ondoren, binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarrekoko txikian eta, amaitzeko, ganbarako lana egin beharko dute, banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Abenduaren 18an Iruñeko Nafarroa Arenan jokatu den finalerako sarrera guztiak agortu dira; beraz, ez da sarrera gehiagorik salgai jarriko. Saioren sarreraren salmenta *bertsosarrerak.eus* atariaren bidez egiten da. Saioak oso arrakastatsuak izaten ari dira.

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Esperantoa munduan zabalduen dagoen nazioarteko hizkuntza planifikatua da. Orain dela ehun urte ingurutik, ia-ia urtero, Lehen Mundu Gerra eta Bigarren Mundu Gerra, eta pandemian salbu, urtero Universal Esperanto Asocio elkarteak munduko esperanto biltzarra antolatzen du. Aurten 107. edizioa egin dute, Montrealen, Quebecen, eta bertan Rafa Blanco hizkuntzalaria eta esperantista altsasuarrak parte hartu du: "Urtean zehar egiten diren topaketa, kongresu, elkarraldi eta abarren artean egiten den handiena da". 2.000 lagun elkartu direla esan du. Aurten berezia izan da duela bi urte Montrealen izan behar zuelako, "eta bi urtez atzeratu da". Urtero munduko biltzar honetan lantzeko gai bat aukeratzen dute, eta aurten, "Montrealen izanda", Indigenen eskubideak: hizkuntza, lurraldea eta kultura izan da gaia.

"Munduko esperanto elkarteak orain dela 50 bat urte Nazio Batuen Elkarteko kontsulta harremanetan duen kidea da, eta UNESCOren partaidea ere bada". Horregatik munduko biltzarrean UNESCOk planteatzen dituen erronkekin bat egiten du, eta Montrealgo munduko biltzarrean, "indigenen hizkuntza askoren bizipenaren inguruan" hitz egiteko saioak egon ziren, bereziki modu akademikoan, Blancok azaldu duenez. Gainera, hainbat mahai inguru, hitzaldi, ponentzia, eta ikastaro edo aisialdiko ekimen izan ziren; halaber, ibilaldiak hirian zehar, tai-chi saioak, abesbatza, musika, dantza, antzerkia eta abar ere izan ziren.

**Hizkuntzak arriskuan**

Quebecen eztabaidatutako egoera oso interesgarria dela azaldu du Blancok. "Gatazka bikoitz bat planteatzen du. Gatazketako bat hizkuntza ofizialena da. Frantsesak atzerakada dezentea izan du duen ingelesarekin alderatuta, eta, bi erreferendum egin badituzte ere, bietan Canadian jarraitzearen aldeko aukera ateratu zen. Oso frantses hitzuna zen lurraldea izatetik, ingelesaren presentzia handia izatera pasa da". Bigarren gatazka, azken 20 edo 30 urtetan hizkuntza indigenena da. "Amerika osoko" arazoa dela dio Blancok. "Konturatu ziren benetan arrisku bizi eta gordinean zeudela eta



Esperanto Nazioarteko Abesbatzak Tolosako Bakearen egunean eman zuten emanaldia. [BAKEA.EUS](https://www.bakea.eus)

# Esperantoaren inguruan

Rafa Blanco Munduko Esperanto Kongresuan egon zen, abuztuan, Montrealen. Bertan hizkuntz indigenen inguruan hitz egin zuten. Ondoren, Tolosan Esperanto Nazioarteko Abesbatzan parte hartu zuen, UNESCOren Bake jardunaldian

daudela, eta, nire ustez, kasu askotan oso berandu ekin diote lanketa horri". UNESCOk eta NBEk hizkuntza indigenen eguna aldarrikatzea erabaki zuten, "eta urte bat edo bi eskaini zioten hari, baina konturatu ziren ez zuela askotarako balio, eta hamarkada osoa eskaintzen diote hizkuntza indigenei".

Hizkuntza asko daudela eta asko "arrisku bizi eta desgertzeko zorian" daudela esan du hizkuntzalariak, "Amerika osoan hamar bat dira irauteko moduan daudenak". Paraguain guarania aipatu du, "ez hain-

**107. MUNDUKO ESPERANTO BILTZARRA IZAN ZEN; HIZKUNTZ INDIGENAK IZAN ZEN GAIA**

beste Bolivian", eta inuitera Groenlandian. "Esperientzia nahiko interesgarria da eta kontuan hartzekoa, hizkuntza txiki batek nola egin dezakeen aurrea". Inuiten hizkuntza Quebecen eta Kanadan ere hitz egiten da, eta hainbat dialekto ditu.

Munduko esperanto biltzar guztien amaieran "aitorpen ofizial" bat egiten dela azaldu du Blancok, eta kasu honetan bertako hizkuntzen edo hizkuntza indigenen balioa aldarrikatu zuten, "euren etorkizuna bermatzeko har daitzeko neurriak eskatuz, aldarrikatuz eta nabarmenduz". Blancok ere mundu akademiko- tik ikusten du "gu agian lau urrats aurrerago gabiltzala" eta orain hizkuntza indigenekin hartzen ari diren neurri batzuk, "gurean hartu genituenak", Euskal Herriko errealitate linguistikoak erakusten duela garai batean

ikastolekin eta euskarazko irakaskuntzarekin "salbatuta" zegoela euskara, "eta konturatu gara ezetz. Gero euskarazko komunikabideekin, eta hori ere ez. Beste arazo batzuk etorri zaizkigu". Horiek beraiei ere etorriko zaizkien arazoak direla azaldu du.

"Oraingoz ez dute euren hizkuntzetan irakaskuntza sistemarik, baina bai ikusten dute eta oso harro daude zenbait hizkuntza baliabide digitalen bidez irakasten dituztelako, eta txuri batzuk hasi dira hizkuntza horiek ikasten". Baina zaletasun

**BAKEAREN JARDUNALDIETAN ESPERANTO ABESBATZAK PARTE HARTU ZUEN**

bat baino ez dela uste du Blancok, "sekulako aurrerapauso bezala ikusten dute. Baina gero ez dute ahalbidetzen ingururik horiek praktikatzeko". Hori da altsasuarrak ateratu zuten ondorioetako bat.

**Euskal Herrira bueltan**

Abuztuaren 6tik 13ra izan zen Montrealgo esperantisten munduko biltzarra, eta irailaren 17an UNESCOk duela 20 urte antolatzen duen Bakearen inguruko jardunaldia izan zen Tolosan. Jardunaldi honetan debateak eta mahai inguruak izaten dira, baita kulturarendako tartea ere badago. "Kasu honetan abesbatza batzuen parte hartzea izan da". Esperanto Nazioarteko Abesbatzak parte hartu zuen, eta bertan Rafa Blanco eta Genaro Paniagua altsasuarrak parte hartu zuten. Euskal Herriko Gazte Abesbatzarekin, Madrilgo Gazte Abesbatzarekin eta Kolonbiako Medellingo abesbatza batekin batera. "Kontzertu guztiz berezia izan zen pandemiagatik atzeratu egin zelako. 2020rako planteatu zen".

Munduko biltzar "handi horretan" osagai bat izaten da hainbat herrialdetako jendeak osatzen duen abesbatza, "800 eta 2000 pertsonen artean beti ateratzen dira 25 edo 40 lagun abesbatza efimero bat sortzeko gai". Egun horietan, biltzarrak iraun bitartean, kontzertuak ematen dituzte. "Orduan, Tolosarako aukera ateratu zen, eta ezin ziren denak etorri". Montrealen aritu ziren 30 abeslarietatik hamar bat etorri ziren: Estonia, Finlandia, Quebec, Frantzia, Luxenburgo, Euskal Herria, Katalunia, Polonia eta Ukrainako jendea bildu zen. Guztien artean 22ko abesbatza osatu zuten.

Errepertorioa "nahiko nazioartekoa" zen, eta nahi eta nahi ez *Txoriak txori, Agur jaunak* eta Jose Alberdi konpositoreak berriki osatu duen *Zatoz* pieza abestu behar zituzten. Esperanto Nazioarteko Abesbatzaren zuzendariak Ukrainako, Finlandiako, zuluena abesti ospetsu bat, AEBtako eta abarretako abestiak aukeratu zituen. "Guretako zail samarra izan zen egun eta erdiko entseguak izan genituelako. Normalean, abesbatzek urtean zehar astean bitan entseatzeko dute. Gurea ez da hain jarraikia. Baina hortxe aritu ginen, eta gustura".

# Ikasleek sortutako ipuina

Ikastolen Elkarateak 'Liburu ibiltaria' ekimenaren bigarren edizioa egin du aurten. Jarduera honetan Euskal Herriko 28 ikastolako DBH3ko ikasleek ipuin bat osatu behar dute, klase bakoitzak istorioari nahi dion jarraipena ematen

**Eneida C. M eta Erkuden R. B.**

ETXARRI ARANATZ / ALTSASU

Asteotan *Liburu ibiltaria* Sakanako ikastoletan egon da, Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolan lehenengo eta Altsasuko Iñigo Aritz ikastolan ondoren. Lizarrako ikastolan jarraitu du bidaia eta helmuga Tafallako Garces de los Fayos ikastola da, Nafarroa Oinezeko aurtengo antolatzailea. Oinez egunean "panel" batzuk jarriko dituzte eta liburua erakutsiko dute. *"Liburu ibiltaria* Ikastolen elkarateak sortutako ekimen bat da. Liburu nahiko handi bat da, egia esan, eta hutsik zegoen; ez zeukan ezer idatzirik", azaldu du Sonia Morentin Andra Mari ikastolako ikasleak. Bilboko Abusu ikastolako DBH hirugarren mailako ikasleak osatzen hasi ziren, aurtengo Ibilaldi-ko ikastola antolatzaileak, eta banan-banan Euskal Herriko 28 ikastolatik pasako da. "Ikasleak gutxinaka idazten eta marrazten joan dira". Klase bakoitzak aurretik kontatutakoa irakurtzen zuen, eta ondoren istorioarekin jarraitzen zuen.

## Helburuak

Amaia Orbegozi Iñigo Aritz ikastolako irakasleak azaldu duenez, ikastolen elkarateak helburu du, "euskaraz bizi, pentsatu, ondo pasa eta euskaraz aritzeko guneak eta ekimenak sortzea, zabaltzea eta sustatzea", eta horren barruan *Liburu ibiltaria* sartzen da. "Honen helburu nagusia da, batez ere DBH3ko ikasleei nola-bateko gune bat euskaraz sortzea, beraien artean elkarlana sustatzea, baita liburu honen pasarte desberdinak irakurriz eremu soziolinguistiko desberdinen berri izatea". Euskal Herriko ikastola bakoitzak bere inguru-

ri dagozkion ekarpenak egin ditu liburuan eta euskalki desberdinak agertzen dira, "eta oso aberasgarria izan da. Mamia badu".

*Liburu ibiltarian* DBH hirugarren mailako ikasleek parte hartzen dute. Andra Mari ikastolaren kasuan bi talde daudenez, gela batek istorioa idatzi zuen eta besteak ilustrazioak egin zituela azaldu du Morentinek. "Lehenengo taldearekin aurretik zeuden kapitulu guztiak irakurri genituen eta taldeka bildu ziren. Guztira, sei edo zazpi talde egin genituen, eta bakoitzak beraien bertsoa idatzi behar zuten, nahi zutena, beraien pasarteak sartuz; gustatzen zitzaizkien gauzak...". Behin pasarteak idatzi zituztenean, klasean ahozgora irakurri zituzten, eta bozketa bidez gehien gustatu zitzaiena aukeratu zuten eta hori jarri zuten liburuan. Hurrengo egunean, beste klasearekin aurreko guztia irakurri zuten, baita beste gelakoen bertsoa ere, eta horren arabera marrazkia egin zuten. "Bakoitzak bere marrazkia egin zuen, eta gehien gustatu zitzaiguna jarri genuen".

Iñigo Aritz ikastolaren kasuan gela bakarra dagoenez gela horrek landu zuen guztia. Orbegozi: "Aipatzekoa da oso garrantzitsua iruditzen zitzaigula ikasleei tesuinguru egoki bat ematea, baita liburu hau zer zen eta zer helbururekin parte hartuko genuen ekimen honetan adieraztea". Hasteko, ipuina ulertzeko ekintzak egin zituzten. "Horre-

**'LIBURU IBILTARIA'  
EUSKAL HERRIKO 28  
IKASTOLATAKO  
DBH3KO IKASLEEK  
OSATU DUTE**

tarako eskema bat egin genuen pertsonaia motekin, zer euskal idazle, zer musikari agertzen ziren, tokiak eta abar". Modu horretara ikasleek zituzten aurre ezagutzak aktibatzen direla esan du irakasleak, "eta euskal kulturaren eta munduan barneratzen dira lehenengo momentutik eta irudimena lantzeko aukera izaten zuten ere".

Talde handian egin zuten eske- ma, eta gero talde txikitara banatu ziren eta bakoitzak rol bat zuen: idazkaria, bozeramailea, elkarre- kintza arduraduna eta abar. "Ideia zaparrada talde txikietan egin zuten". Taldetan sortutakoarekin bateratze bat egin zuten eta "ideia politenak" hartuz pasarte bat jarri zuten liburuan. "Jakinararen gainean geunden liburua amaitzear zegoela, eta nahi genuen ondoren zetozen ikastolei bukaera hori erraztea". Liburuan idazteko bi idazkari izendatu zituzten, eta marrazkiak egin zituzten ere. Historia amaitzear zegoela eta Morentinek ere aipatu du ondoren etortzen zirenak laguntzeko, "pertsonaia gehiago ez hiltzen" saiatu zirela. Emaitzarekin "pozik" gelditu dira irakasleak, "oso polita gelditu zen". "Oso ikasle abilak ditugu, irakasleok baino abilagoak".

## Esperientzia

Morentin eta Orbegozi irakasleak, eta Iñigo Aritz ikastolako Beñat Andueza eta Magali Urteaga eta Andra Mari ikastolako Elene Andueza, Sugaitz Bummiller eta June Ganboa ikasleak Belexe Irratian *Liburu ibiltaria* proiektuaren inguruan eta bertan parte hartzen izan duten esperientziaz hizketan aritu ziren, eta aitortu dutenez, liburua osatzeko orduan ez dira eztabaidak egin. "Ongi ibili



Proiektuan parte hartu duten ikasle eta irakasleak.



'Liburu ibiltaria' osatzen. UTZITAKOIA

gara, ez dugu eztabaidarik izan". Proiektuaren ideia gustatu zaie la esan dute ere.

Lier eta Laia dira *Liburu ibiltariaren* protagonistak, ikasleek kontatu dutenez. Izan ere, aurretik idatzitako guztia irakurri behar izan dute. "Euskararekin lotura duen ibilbide bat egiten ari dira, eta Euskal Herriko herri desberdinetatik pasatu dira". Liburua Etxarri Aranzera Berako Labiaga ikastolatik iritsi zenean, musikari bat kontratatu behar dute protagonistek, kontzertu bat eman behar dutelako. Istorioan zehar ere izaki mitologikoak agertzen direla aipatu dute. "Guk istorioa jarraitu genuen", eta Altsasura "musikari pila bat" iritsi zirela azaldu dute Iñigo Aritzako ikas-

leek. "Etxarrikoek Basajaunen koban amaitu zuten beraien pasarte, eta guk Euskal Herriko erdigunera ekarriko ditugu musikari, idazle eta poeta guztiak". Beriainen bilera bat osatzera "bidali" dituzte.

Ipuinak, beraz, jarraipena izan du, eta bukatze arren, oraindik zenbait kapitulu gehituko diote. Altsasutik Lizarrara bidaiatu du, eta bertatik Iruñeko Jasora joan da, bidaia Tafallan amaitzeko. Garces de los Fayos ikastolak antolatuko du aurtengo Nafarroa Oinez, urriaren 16an, eta bertako DBH3ko ikasleei dagokie ipuinari amaiera ematea.

Ondoren, parte hartu duten ikastolek liburuaren aletxo bat jasoko dute, oroigarri gisa.



BAZTERRETIK

ANNE AZKONA UNANUA

## Nola aukeratu dezakezu ogi egoki bat?

Ezer baino lehen, azpimarratu nahi dut espainiar estatuan ogi bat integralizat hartzeko legedian dagoen hutsunea, merkatuan integralizat hartzen diren ogiak %0ko irin integralarekin aurki baitaitezke. Kasu hauetan, industriak ogi bat integrala dela adierazi dezake etiketan, betiere produktuaren 100g.ko 3g zuntza iturria badu. Zuntz asko badu, integrala dela esan nahi du? zoritzarrez, EZ. Eta orduan, zer ezaugarri ditu benetako ogi integral batek?

Ogia egiteko alea ehotzean, alearen kanpoaldeko geruza baztertzen da. Justu zuntza guztia topatzen den geruza. Prozesu horren ondoren lortuko den produktuari FINDUTAKO IRINA edo IRIN ZURIA deritzen.

Nagusiki, merkatuetan ogi "integralak" deritzen ogiak findutako irinak (zuntzik gabekoak) dira beste ehotze batzuetatik lortutako zahiarekin (zuntza) nahastuak. Modu honetan, ogi horien etiketan ageri den taula nutrizionalari erreparatu badiozue, zuntz kantitate handia izango dute eta integrala erosten ari zaretela pentsatzera joko duzue gehienok. Aldiz, ogi horiek ez

dira inoiz benetako ogi integralak izango, industriarako oso nahasketa interesgarria eta ekonomikoa baizik.

Benetako ogi INTEGRALA ale osoa ehotzearen ondoriozko irinetatik lortzen da, eta ez dute, beraz, zahia baztertu behar. Hona hemen, zalantzarik ez izateko truko batzuk:

Erosiko duzun ogiaren etiketan osagaien zerrendan X zerealaren izenarekin batera, alboan "ale osoa" edo "irin integrala" hitzak azaldu behar dira beti. Nik esaten dudana bezala, zerealaren izena aipaturiko abizenetako batekin agertu behar da beti.

Oso garrantzitsua den hurrengo urratsa ogiaren KALITATEA ziurtatzea izango da. Erosi nahi duzun ogiaren osagaien zerrendan zerealaren izen-abizenak dituela jabetuta, IRIN INTEGRAL horren ehunekoari erreparatu behar diozu. Gomendioa %80 baino gehiagoko irin integralez eginiko ogiak erostea litzateke.

Benetako ogi integral batek soilik OSAGAI hauek izan beharko lituzke: %80-100 irin integrala, (ama) -legamia masa, ura eta gatz. KITTO!

CURSO 2022-2023 IKASTURTEA

# ABRE TU MENTE

Una historia donde el pasado se hace presente... y futuro  
MATRICULATE FOOLS

La puerta de entrada a un mundo fascinante  
LEARNING TIMES

La experiencia que emocionó a miles de personas  
NARRIETY

## EUSKERA AHORA

(MATICULATE YA)

PRÓXIMAMENTE EN LAS MEJORES AULAS

### EUSKARA IKASTEKO/HOBETZEKO TALDEAK SAKANAN (AEK): GRUPOS PARA APRENDER EUSKERA EN SAKANA :

ALTSASU	ETXARRI ARANATZ	IRURTZUN
Hasiera 9:00-11:40 (1,2,4)	B2 15:00-16:30 (1,2,3,4)	Hasiera 9:30-11:30 (1,2,4)
Hasiera 17:00-19:00 (1,2,3,4)	A1 15:00-17:00 (1,2,4)	Hasiera 18:00-20:00 (1,2,4)
A1+ 18:00-20:00 (1,2,3,4)		A1 9:30-12:30 (2,4)
A2 19:00-21:00 (1,2,3,4)		B1 15:00-16:30 (1,2,3,4)
A2/B1 9:00-11:40 (1,2,3)		B2 9:15-12:15 (2,4)
A2/B1 18:00-20:00 (1,2,3,4)		
A2.2 9:00-11:40 (1,2,3)		
A2.2/B1 18:00-20:00 (1,2,3,4)		
B1+ 9:20-12:00 (1,2,4)		
B2 19:00-21:00 (1,2,3,4)		
EGA 17:00-19:00 (1,2,4)		

AUTOIKASKUNTZA (maila guztiak) MINTZAKIDE (dohainik)

Nahi zenukeen maila edo orduetgia zerrendan ez badago, galdetu euskaltegian: 948 468 258

Si el nivel o el horario deseado no está en la lista, pregunta en el euskaltegi: 948 468 258

Euskaltegi gehiago/más euskaltegis: [www.elalde.eus](http://www.elalde.eus)

Diru-laguntza handiak (%90-%100): Sakanako Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuak eta zenbait udalek

Informazio gehiago Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan: 948 464 840

Mank  
S A K A N A

[euskara.kod.nafarroa.eus](http://euskara.kod.nafarroa.eus)

[aprendeuskera.nafarroa.es](http://aprendeuskera.nafarroa.es)



Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua



2036 euskarabidea



## 11 GALDERA



Maite Barrenetxea Gomes eta bere kuadrilla, 2019an Iruñeko erraldoien konpartsa mozorrotuta.

# "Gure erraldoiak Donostian paseatzen ibili ziren"

2019ko inauterietan Iruñeko erraldoi konpartsez mozorrotu zen Maite Barrenetxea Gomes olaztiarraren kuadrilla, arrakasta handiz. Erraldoi eder horiek Olazti, Eulate eta Donostia ezagutu dituzte

**Maidar Betelu Ganboa** OLAZTI

## 1 Beti mozorrotzen zarete?

Beti gustatu izan zaigu mozorrotzea. Inauteriak gogoz bizi ditugu. Karroza prestatu, eta kuadrilla osoa ateratzen gara.

## 2 Nola bururatu zitzaizuen Iruñeko erraldoien konpartsa mozorrotzea?

Kuadrillako batzuk seme-alabak genituen, eta haurrak erraldoiekin liluratuta zeuden. Kuadrillako Nereak proposatu zuten.

Idea zen trajea erostea, baina, azkenean benetako erraldoiak prestatzea erabaki genuen.

## 3 Nolako lana hartu zenuten!

Bai, lana izan zen. Ni hasi nintzen ideia garatzen. Kuadri-

llako mutilek egitura landu zuten. Zurezkoa eta material birziklatuzkoa da: poliespana. Erabilitako ia material guztiak birziklatuak dira, oihalak izan ezik. Abendu hasieran hasi ginen lanean. Jantziei dagokienez, ez dut inoiz josi, baina nik egin nituen patroiak. Ez dakit nola, baina egin nituen (kar, kar...).

## 4 Laguntza izan al zenuten?

Bai, jende askok lagundu zigun. Elok, Maria Jesusek, Aliciak, Milak eta Josunek, nire patroiei jarraiki arropak josi egin zituzten. Aurpegiak margotzen Maria Jesusek eta nire ahizpek, Mirentxuk eta Martak, lagundu ziguten. Eta azken ukituak eta xehetasunak kuadrillako neskak egin genituen. Bestalde, Sakanako Belenzaleen Elkarteak urtero ikastaro bat egiten dute poliespanarekin nola egiten duten lan erakusteko, eta izena eman nuen. Eurek irakatsi zidaten, eta zortzi erraldoien aurpegiak eta bustoa poliespanarekin egin nituen. Horrela, erraldoiak ez dira pisutsuak, arinak dira.

## 5 Buruhandi bat ere egin zenuten.

Esan zidaten, "Caravinagre egin", baina zaila izango zelakoan errazena iruditzen zitzaidana egin nuen: El Barbas.

## 6 Iruñeko erraldoiak direla begi bistakoa da. Arropak ere berdin-berdinak dira.

Ahalik eta antzekoenak egin genituen. Europa, Afrika, Asia eta Amerikako erregeak eta El Barbas. Inauterietan atera ginean, umeak txundituta geratu ziren. Gure atetik ibili ziren egun guztian, oso polita izan zen. Izugarri ongi pasatu genuen.

## 7 Sariren bat jaso al zenuten?

Lehen saria pilota partida baten emisioa antzeztu zuen laukote batek irabazi zuen, frontoi eta guzti. Oso originala zen. Gu bigarrenak izan ginen.

## 8 Inauteriak bukatuta, zer egin zenuten erraldoiekin?

Kuadrillako baten familiako bagera batean gorde genituen. 2019 urtean bertan Eulatik hots egin ziguten. Bertan erraldoiak izugarri gustuko zituen gazte bat zegoela, eta festetarako gure erraldoiak eraman ahal zituzten galdezka. Uste dut bikote bat

eraman zutela, eta gero bueltan ekarri zuten. Eta Olaztiko festetan erraldoi bikote bat, Europako errege eta erregina, atera genituen Olaztiko konpartsaekin batera. Umeek dantzatu zituzten, hala nahi zutelako. Hautsa piltzen egon beharrean, nahiago dugu erraldoiei bizitza eman eta erabiltzea.

## 9 Zuen erraldoiek aurten Donostian dantzatu omen dute.

Kontua da gure erraldoiak ez daudela prest desmuntatzeko. Muntatuta daude, eta, hortaz, toki asko okupatzen dute. Zeuden bajaran tokia behar zuten eta erretiratu behar genituen. Gure kuadrillako Sergiok jakin zuen Donostiako Antiguako auzoan erraldoien konpartsa bat sortzen ari zirela. Berak esan zien guk erraldoi batzuk genituela, ez genituela erabiltzen eta ea nahi zituzten, erraldoiei bizia emateko, eta haiek baietz. Festak San Joanetan ospatzen dituzte, eta gure erraldoiak Donostian paseatzen ibili ziren. Asteguna zenez, ezin izan ginen ikustera joan. *Diario de Noticias*en artikulua bat idatzi zuten, Donostian San Ferminen pregoia egin zutela esanez (kar, kar).

## 10 Hortaz, zuen erraldoiak donostiarrek dira orain.

Hiru bikote han geratu dira, baina laugarren bikotea, errege eta erregina europarrak, aldiz, Olaztin daude. Erraldoiak Donostia-ramateko orduan sekulako pena eman zidan. Mozorrotzean nik Europako erregina eraman nuen, eta Joshepamunda eta Joshemiguelerico, nire aitaren bajaran uztea erabaki nuen. Aurten Olaztiko festetan atera genituen. Olaztiko erraldoien arduradun Julio Marquesek eskerrak eman zizkidan. Konpartsa aurrera ateratzeko nahikoa lan dute, jende falta dutelako, baina galdetu zidan ea San Migel egunerako utziko genizkien, gaztetxo batzuk animatu eta ateratzeko. Jakina, baiezkoa eman nion.

## 11 Zuen hurrengo mozorroa zein izango den, jakin-mina egongo da.

Aurten ijitoz jantzita atera ginen. Pandemia zela ez zela, di-da egin genuen, baina hurrengorako prestatuko dugu zerbait. Buruari eragiten hasiko gara.

AUTOAREN ZERGA NOIZ ORDAINITZEN DA?

ITXARON, BULETINAN BEGIRATUKO DA!



DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

fo

619 821 436  
Foru plaza, 23-1. Altsasu  
info@gkomunikazioa.eus  
www.gkomunikazioa.eus

**ZABALDU ZURE HERRIKO**  
**INFORMAZIOA**

UDAL BULETINAK,  
ESKUORRIAK,  
LIBURUXKAK...  
NAHI DUZUNA  
PRESTATUKO DIZUGU